

# ITUNPEKO IKASTETXE INKLUSIBO BATEN ALDE



Save the Children



*Ikastetxea askatasunez hautatzea  
bermatzeko gakoak*



Gizarte eta Politika Eragineko zuzendaria: **Catalina Perazzo Aragonese**. Haurtzaroko Politiken arduraduna: **Carmela del Moral Blasco**. Egilea: **Alfonso Echazarra de Gregorio**. Zuzentzailea: **Laura Casajús Izquierdo**. Arte eta maketazioa: **Elena del Real Moreno**. Argazkia: **Alba Lajarín Aymamí**.



Argitaratzailea:

**Save the Children Espainia**  
2024ko iraila

---

## **Edukiak**

### ***Emaiza nagusiak***

- 1. Zer helburu ditu azterlan honek?***
- 2. Zer da itunpeko eskola?***
- 3. Itunpeko eskolaren presentzia***
- 4. Ikasleen gizarte-osaera itunpeko eskolan***
- 5. Jatorri migratzailea duten ikasleak itunpeko eskolan***
- 6. Aukeratzeko askatasuna bermatuz: Itunpeko eskolaren doakotasuna***
- 7. Aukeratzeko askatasuna bermatzea: sarbide-irizpide bidezkoak***
- 8. Save the Childrenen proposamena itunpeko eskola arautzeko***

### ***Bibliografia***

### ***Eranskinak***



## ***Emitza nagusiak***

- Itunpeko eskola oso zabaldua dago hezkuntza-sistematik onenetan, ekitatearen eta bikaintasun akademikoen ikuspegitik. Hezkuntza-sistema talde horretan, ikasleen %25 inguru itunpeko eskoletara joaten da, eta gainerako taldeetan, berriz, ez da %10era heltzen.
- Espainiako eta autonomia-erkidego gehienetako hezkuntza-sistemetan, egoera sozioekonomikoa berdintsua denean, itunpeko eskolako ikasleek eskola publikoko ikasleen antzeko puntuazioa lortu zuten 2022ko PISAren matematikako proban.
- Espainiako hezkuntza-testuinguruan errotu egin da itunpeko eskolak betetzen duen osagarritasun funtzioa, non eskola publikoa den hezkuntza-sistemaren hezurdura eta itunpeko eskola horren osagarria.
- ELGE eremuan, itunpeko eskola nagusitzen da Erresuma Batuan, Herbeheretan, Belgikan eta Txilen, eta marjinala da Grezian, Letonian eta Italian.
- Itunpeko eskolak presentzia gutxiago du sinestun gehien dauden autonomia-erkidegoetan, esaterako Andaluzian, Kanarietan, Gaztela Mantxan eta Extremaduran. Aldiz, oso zabaldua dago aberastasun-maila handieneko autonomia-erkidegoetan, Euskadin, Madrileko Erkidegoan eta Nafarroan, kasu.
- Espainiako itunpeko ikastetxeetan matrikulatutako ikasle kopurua bere horretan mantendu da azken hamarkadetan, %30 inguruan ibili da derrigorrezko etapetan. Murtziako Erregioko, Madrileko Erkidegoko eta Errioxako autonomia-erkidegoetan apur bat gora egin du azken hamarkadan; Katalunian eta Kantabrian, berriz, nabarmen jaitsi da.
- Aztertutako ELGE herrialdeen artean, Espainiako hezkuntza-sisteman ematen da arrakala sozioekonomikorik handiena itunpeko eskolen eta eskola publikoen artean. Egitez, Espainiako eskola-segregazioaren ia %21a itunpeko eskoletan eta eskola publikoetan den gizarte-eraketa ezberdinari zor zaio. Ehuneko hori bera ez da kasik %10era iristen beste hezkuntza-sistema batzuetan eta Herbeheretan eta Erresuma Batuan. Batean zein bestean itunpeko eskolak nabarmen nagusi badira ere, portzentajea kasik zero da.
- Atzerritar herritartasuneko ikasleen matrikulazioari dagokionez, Melillan eta Murtziako Erregioan ematen dira alde handienak eskola publikoen eta itunpeko eskolen artean.
- Itunpeko eskolari lotutako kuotak eta gastuak neurritsuak izan ohi dira, baina horrek eskatzen duen ahalegin ekonomikoa ez dago kalteberatasun handieneko familien eskura.

- Itunpeko eskolaren finantzaketa pribatua denaz bezainbatean, berriz, Espainia nabarmentzen da guztien gaineratik.
- Itunpeko eskolak finantzaketa publiko handiagoa jasotzen du itunpeko eskoletako eta eskola publikoetako ikasleek antzeko ezaugarri soziodemografikoak dituzten ikasleak dituzten hezkuntza-sistemetan. Erresuma Batuan eta Herbeheretan itunpeko eskola administrazio publikoak finantzatzen du ia osorik, eta eskola publikoetara eta itunpeko eskoletara joaten diren ikasleek antzeko ezaugarri soziodemografikoak azaltzen dituzte.
- Itunpeko eskolak finantzaketa publiko hobe bat jasotzeak ez du esan nahi, nahitaez, eskolaren autonomia ahultzen denik. Erresuma Batuan eta Herbeheretan, adibidez, administrazio publikoek egoki finantzatzen dute itunpeko eskola, baina autonomia handia du finantzaketaren eta curriculumaren aldetik. Espainian, itunpeko eskolaren finantzaketa publikoa aski ez den arren, eskola-autonomia gutxi dute bai itunpeko eskolak, bai eskola publikoak.
- Espainiako ikastetxeetako onarpen-prozesuak ekitatiboak izan ohi dira, normalean ez dira selektiboak. Halere, indarrean jarraitzen dute ikasle kalteberenak potentzialki baztertzen dituzten onarpen-irizpide batzuk, adibidez, eskatzailea edo horren senideren bat antzinako ikaslea izatea. Kasurik nabarmenena, ordea, baliteke izatea autonomia-erkidego batzuetan ikastetxeek askatasunez aukera ditzaketen irizpide osagarriak. Horietan, besteak beste, honako hauek aurki ditzakegu: senide bat erlijio-kongregazio batekoa izatea, ikastetxe katoliko batean ikasten jarduna edo kooperatiba-bazkidea izatea, edo eskatzailea haur-eskola jakin baten matrikulatuta egotea edo matrikulatzeko eskatzen den ikastetxea titularra izanik horrek kudeatzen duen kirol-klub batean parte hartzea.
- Kataluniako motxilles escolars izeneko programa da, ziurrenik, Espainiako hezkuntza-sisteman ikastetxea askatasunez hautatzeko aukera familia kalteberenei ere zabaltzeko ematen dien esperientzia interesgarriena. Programa horrek funts gehigarri batzuk bermatzen dizkie ikasleak guztiz doan matrikulatzen dituzten itunpeko eskolei.
- Euskadin, itunpeko eskolak eskola katolikoetan eta ikastoletan banatzen dira. Bizefalia hori lagungarria izan da itunpekoak gizarteko sektore zabaletan onartuak izan zitezen, baita zeharkako itun politikoak lortzeko ere.

## 1. Zer helburu ditu azterlan honek?

Paula ama ezkongabea da, nerabezaroan diren bi seme ditu, Pedro eta Juan, eta hirurak auzo apal batean bizi dira. Pedro eta Juan auzoan dagoen itunpeko eskolan matrikulatu nahi lituzke Paulak, hurbil dagoelako, jantokia duelako eta ordutegi zatitua duenez bere lana eta bizitza pertsonala uztartzen lagunduko liokeelako. Gainera, ikastetxearen balio erlijiosoekin identifikatuta sentitzen da. Baina arazo bat dago, edo bi, hobeto esateko. Lehenengoa, auzokideek esan diote ikastetxea ez dela guztiz doakoa. Antza denez, familiek 25 euroko kuota bat ordaintzen dute hilean seme-alaba bakoitzeko, eta 125 euro inguru jantokiko zerbitzuagatik. Horrez gain, eskolako eta txangoetarako materiala ordaintzeko ere jarri behar izaten dute. Paulak gutxieneko soldata irabazten du, ezin ditu bere gain hartu semeak ikastetxean eskolatu eta bertako jantoki-zerbitzuaz baliatzeagatik hilean jarri beharko lituzkeen 300 eurotik gora. Eta, Kontseilaritzaren web-orria arretaz irakurri ondoren, ez du ematen jantoki-zerbitzurako beka lortzeko aukerarik dagoenik semeak itunpeko eskola batera joanez gero. Bestela ere nahiko zail egiten zaizkio oinarrizko kuoten 50 euroak, gutxieneko soldatarekin doi-doi heltzen delako hilabete amaierara. Ikasturte honetan ezingo da izan, baina hurrengoan baliteke arazorik ez izatea, lanbidean mailaz igotzeko itxaropena du-eta. Halaxe, Paularen diru-sarrerak nabarmen igo ziren hurrengo ikasturtean, azkenean ordaindu ahalko zituen auzoko ikastetxe katolikoaren oinarrizko kuotak. Are, bere bi semeek eskolako jantokian jan ahalko zuten. Alabaina, beste arazo bat sortu zitzaion Pedro eta Juan matrikulatuzera joan zenean. Kontua da ikastetxean sartzeko eskaera handia dagoela, eta Pedrok eta Juanek ezin izan dute sartu ikastetxeak aukeratutako irizpide osagarria, hau da, antzinako ikaslea izatearena, erabakigarria izan delako. Pedrok, Juanek eta Paulak hiru urte besterik ez daramatzate Espainian, eta beraz, ezin zuten lehiatu hamarkadetatik ikastetxearekin lotura duten familiekin. Onarpen-prozesu horrek zigortu egiten ditu atzerritar jatorriko ikasleak. Paula etsiak hartu du, eta ondorioztatu du ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidea ez dela berea bezalako familia kalteberentzat.

Paula ez da benetako pertsona, baina haren kasuak modu errealistan azaltzen du familia kalteberenek itunpeko ikastetxeak aukeratzeko orduan aurkitzen dituzten traba batzuk. Traba horiek identifikatzea eta horiek desagertzeko aldaketak proposatzea da, hain zuzen, azterlan honen helburua, Espainiako hezkuntza-sisteman ekitatea hobetzen laguntze aldera<sup>1</sup>. Horretarako, azterlan honek hainbat hezkuntza-sistemetako eta hainbat autonomia-erkidegoetako itunpeko eskolaren ezaugarriak aztertuko ditu<sup>2</sup>. Funtsezko bi kontu aztertzen dira ekitatearen eta itunpeko eskolaren arteko harremana ulertzeko: **doakotasuna eta onarpen-irizpideak**. Itunpeko irakaskuntzaren doakotasuna eta onarpen-prozesuen inpartzialtasuna funtsezko neurriak dira familia guztiek, bereziki kalteberenek, askatasunez hauta dezaten funts publikoak jasotzen dituzten zein ikastetxetan nahi dituzten eskolatu euren seme-alabak. Familia guztientzako askatasunez hautatzeko aukera horrek, gainera, ikasleak modu orekatuagoan banatuko lituzke eskoletan, eta itunpeko eskolak irudi hobea eta finantza-egonkortasun handiagoa izango lituzke. Horrekin batera, eskola publikoa eta itunpeko eskola bereizten dituen lerroa ezabatu egingo litzatekeenez, itunpeko eskolen alde egiten duten familiak gehiago identifikatuko lirateke hezkuntzako zerbitzu publikoekin.


1 Txosten honetan zehar, hezkuntza-ekitatea dagoela esateko, ikaslearen inguruabar pertsonalek bere hezkuntza, gizarte eta lan alorreko emaitzetan zenbateraino eragiten duten begiratuko zaio, ikasleak horien gainean ez duenean zuzeneko kontrolik.

2 Nazioarteko kasuen artean, ELGEEn 2022ko PISA txostenean ikasleen %5, gutxienez, itunpeko eskoletan matrikulatuta duten hezkuntza-sistemak aztertzen dira (ikus 3. grafikoa). Nazioarteko alderaketak 15/16 urteko ikasleak eta horiek joaten diren ikastetxeak hartzen ditu kontuan. Belgikako datuak komunitate frankofonoarenak bakarrik dira. Espainiaren kasuan, 17 autonomia-erkidego aztertu dira, eta baita Ceuta eta Melillako autonomia-hiriak ere, horietako datuak direnean. Derrigorrezko etapetako datuak aztertu izan dira, ahal den neurrian; hortaz, lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako datuak hartu dira.

Txosten labur honek erakusten du Espainiako itunpeko eskola batzuk eskola-segregazioa areagotzen laguntzen dutela, ikasle kalteberenak gainerako ikasleengandik berezita. Espainia da, adibidez, ikasleen profil sozioekonomikoari begiratuta eskola publikoen eta itunpeko eskolen artean alderik handienak azaltzen dituen ELGEko herrialdeen artean. Eskola-segregazio handiago hori hezkuntzako ekitatearen kalterako izan daiteke, haurren eta nerabeen ikaskuntza, itxaropenak eta ongizatea, hein batean, ikasgela norekin partekatzen dutenaren mende egoteagatik bakarrik bada ere. Garrantzitsuago oraindik: eskola inklusiboago eta askotarikoek tolerantzia eta gizarte-kohesioa bultzatzen dute<sup>3</sup>.

Eskola pribatua eskola-segregazioarekin lotzen bada ere,<sup>4</sup> batez ere, sozioekonomikoki hobeto diren ikasleengandik,<sup>5</sup> nazioarteko ebidentziak erakusten du itunpeko eskola ez dagoela beti lotuta eskola-segregazioarekin eta hezkuntzako ekitate ezarekin. Erresuma Batuko eta Herbeheretako bezalako hezkuntza-sistemetan –bieten gehienak itunpeko eskoletara joaten dira–, eskola publikoetara eta itunpeko eskoletara joaten diren ikasleak antzeko ezaugarri soziodemografikoak dituzte. Ekitatearen eta bikaintasun akademikoaren aldetik hezkuntza-sistematik onenetan itunpeko eskolak duen presentzia handia da itunpeko eskolak hezkuntza-ekitatean laguntzen duenaren edo, behintzat, galarazten ez duenaren beste froga bat (1. grafikoa). Hala, 2022ko PISAren matematikako probetan etekinik eta ekitaterik handiena erakutsi zuten hezkuntza-sistemen taldean, ikasleen %25 inguru itunpeko eskoletan zebilen. Gainerako taldeetan, aldiz, ez zen %10era heltzen mota horretako eskoletan matrikulatutako ikasle kopurua.

1. grafikoa. **Eskola motaren arabera eskolatzea, hezkuntza-sistemen errendimendua eta ekitatea kontuan hartuta, 2022ko PISA**



Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuekin.


3 Karsten, 2010; ELGE, 2023.

4 Bonal, Zancajo and Scandurra, 2019.

5 ELGE, 2023.

Ezindaerebaztertuitunpekoeskolakharenikasgeletarajoatendirenikasleenerrendimendu akademikoa kaltetzen duenik. Hezkuntza-sistema batzuetan, itunpeko eskoletara joaten den ikasleriak errendimendu akademiko kaskarragoa erakusten du eskola publikoetara joaten den ikasleriaren aldean, ikasleen profil sozioekonomikoa baztertu ondoren. 2022ko PISAren matematikako probetan, itunpeko eskolaren errendimendu akademikoa eskola publikoaren errendimenduaren azpitik zegoen hainbat hezkuntza-sistemetan, esaterako Turkian, Txekiar Errepublikan, Frantzian, Eslovakian eta Australian (2. grafikoa). Ez da hori Espainiako hezkuntza-sistemaren kasua. Izan ere, egoera sozioekonomikoa berdintsua denean, itunpeko eskolako ikasleek eskola publikoko ikasleen antzeko puntuazioa lortu zuten matematikako proban. Laginaren tamaina murriztua dela-eta zuhurrak izatea komeni bada ere emaitzak interpretatzeko orduan, ez da ere alde handirik ikusten autonomia-erkidegoetako itunpeko eskolen eta eskola publikoen artean (2.b grafikoa). Estatistikoki, Valentziako Erkidegoan (itunpeko eskolaren alde) eta Errioxan (eskola publikoaren alde) bakarrik azaldu ziren alde nabarmenak.

2. grafikoa. **Eskola publikoaren eta itunpekoaren artean matematikako batez besteko emaitzen arteko diferentziak, 2022ko PISA**



— Ikasleen profil sozioekonomikoaren arabera egokitu ondoren    ● Ikasleen profil sozioekonomikoaren arabera egokitu aurretik  
 Oharra: tonu ilunetan azaltzen dira estatistikoki esanguratsuak diren aldeak. Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuekin.



Itunpeko eskolak ez du, ezinbestean, hezkuntza-emaitza hobekoetara edo okerragoetara eramaten. Hortaz, hau ez da itunpeko eskolaren izatea, egitekoa edo funtzionamendua ezbaian jartzeko azterlan bat, ezta ere hori bultzatzeko txosten bat. Azterlan hau premisa honetan oinarritzen da: itunpeko eskolak presentzia esanguratsua eta egonkorra du Espainiako hezkuntza-sisteman, eta haren eginkizun osagarria hezkuntza-sistema horretan errotuta dago (1. laukia). **Gure helburua da itunpeko eskolaren testuinguru finantzario eta juridikoa eraldatzea, ez besterik, familia guztiek, bereziki kalteberenak, eskola horietara berdintasunean sartzeko aukera izan dezaten.** Horrek, gainera, eskola-segregazioa murrizten lagunduko luke. Save the Children erakundearen uste irmoa dugu, Espainiako hezkuntza-sisteman hauteman den hezkuntza alorreko berdintasun ezaren aurrean, itunpeko eskola arazoaren parte izatetik konponbidearen parte izatera igaro daitekeela. Hori bakarrik ez, gure ustez itunpeko eskola inklusiboak lirateke, hau da, kuotarik kobratzen ez dutenak edo, kobratzen badute, kuota sinbolikoak ordaintzen dituztenak eta auzo apaletako ikasleen ehuneko handi bat matrikulatzen dutenak, onura gehiena jasoko luketenak bere ikasleen kalteberatasun-egoerak kontuan hartuta kostu errealerara egokitzen den finantzaketa batekin. Gaur egun, izan ere, itunpeko eskolak apenas jasotzen duen pizgarririk auzo apaletan ezartzeko, aski ez den finantzaketa publiko batekin oso zaila delako kalitateko hezkuntza-zerbitzu bat eskaintzea kuoten kobrantza arazo izango litzatekeen gizarte-testuinguru batean.

## 1. / Itunpeko eskolaren rola Espainiako sistema publikoan: subsidiarotasuna, osagarritasuna ala ordezkagarritasuna?

Itunpeko eskolaren funtzionamenduari eta araudiari buruzko eztabaidetan, desadostasunen zati bat eskola mota horrek espainiar hezkuntza-sisteman bete behar duen egitekoaren gainean dauden kontzepzio ezberdinek, are aurkakoez, eragiten dute.

Alde batetik, **subsidiarotasuna** azpimarratzen duen kontzepzioa dago, zeinaren arabera itunpeko eskolaren eginkizun nagusia eskola publikoak hartu ezin dituen haur eta nerabeak heztea den, batez ere, baliabide publikoen faltagatik. Argudio hori zorrotz aplikatzen badugu, itunpeko eskolak presentzia estrategikoa eta iragankorra luke, eta hondar balioa luke epe luzera begira. Demagun botila bat, non ura eskola publikoa den eta airea itunpeko eskola den. Administrazio publikoak urez betetzen doaz pixkanaka, botila barruko airea konprimatzen den arte, hondar-espazio bat bakarrik geratzeraino. Ikuspegi hori nahiko garrantzitsua izan zen 80ko hamarkadako urteetan, eta gizarteko eragile batzuk oraindik ere hori defendatzen dute. Hala ere, azken 20 urteotan itunpeko eskolako eskolatzeak azaldu duen garrantzia eta egonkortasuna ikusita, Espainian ez du ematen ikuspegi hori nagusitu denik.

Bigarren kontzepzioa **osagarritasunean** oinarritzen da, zeinaren arabera itunpeko eskolaren egiteko nagusia eskola publikoa osatzea eta, ikuspegi hori partekatzen dutenei jarraituz, Konstituzioaren 27. artikulutik hezkuntza arloan eratortzen diren askatasunak betetzea den. Ikuspegi horren aburuz, eskola publikoa da hezkuntzarako eskubidearen bermatzaile nagusia. Estatuko Eskola Kontseiluaren hitzetan, irakaskuntza publikoak "egituratzen

du gure hezkuntza-sistema, herri eta hiri guztietan, auzo eta herririka guztietan dago (...)", eta hori indartu behar litzateke, "herri eta hiri guztietan den eskaintza familia guztien eskaria betetzeko gauza izan arte". Ikuspegi hori zorrotz aplikatuz, beraz, hezkuntza-administrazioek planifikatu behar dute hezkuntza-eskaintza, arrazoizko distantzia batera beti eskola publiko bat edo, bestela, doako garraio publiko bat egon dadin, familia guztiek izan dezaten eskola publikorako aukera. Bi eskola motak hertsiki ordezkagarriak ez direlako gertatzen da hori. Demagun botila bat, non eskola publikoa ura den eta itunpeko eskola olioia den. Demagun likido horien dentsitateak biek ala biek duten babes juridiko eta soziala adierazten duela. Egoera horretan, ura (eskola publikoa), bizirauteko trinkoagoa eta ezinbestekoagoa denez, sistemaren oinarria litzateke, eta olioia (itunpeko eskola), berriz, uraren gainean oinarritzen da, haren osagarri. Administrazio publikoak botila betetzen doazen heinean, olioia rol osagarria hartzen doa, bigarren mailakoa, baina ez da desagertzen, duen dentsitateagatik (babes juridiko eta soziala). Ikuspegi hori nagusi da, gaur egun, espainiar testuinguruan. Eskola publikoak hezurramitzen du hezkuntza-sistema, baina itunpeko eskolak ere presentzia garrantzitsua eta erlatiboki egonkorra du.

Azkenik, **ordezkagarritasunaren** ikuspegia dago, zeinaren arabera eskola publikoek zein itunpekoek antzeko babes juridiko zein soziala duten, ia antzeko logika eta araudien arabera aritzen diren, eta eskola-plangintzari begira elkar ordezkari daitezken. Botilaren adibidearekin jarraituz, jatorri ezberdineko urak nahasteaz ariko ginateke. Kasu horretan, ez du garrantzirik eskola publikoak zein itunpekoak betetzen duten ehunekoak, azken batean substantzia berbera delako edo, behintzat, halaxe ikusten dutelako bai administrazioak, bai gizarteak. Ikuspegi hori hertsiki aplikatzen jarrita, hezkuntza-administrazioek, praktikan, ez dute bereizketarik egiten funts publikoen laguntzekin aritzen diren eskolen artean, edozein dela ere horien kudeaketaren atzean dagoen erakundea. Ordezkatze-eredu batera heltzeko, ordea, gizartearen begietara baliokideak izan behar lirateke eskola publikoa eta itunpeko eskola, eta ez du ematen hori denik espainiar hezkuntza-sistemaren kasua (ikus 2. laukia). Dena dela, Espainiako sistema publikoak baditu, behintzat, ordezkatzeko-logika batzuk, onarpen-prozesuekin gertatzen den bezala. Erkidego guztiek araudi berdina dute funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztientzat eta gauza bera gertatzen da itunpeko ikastetxeak bakarrik dauden udalerrietan (ikus 7. laukia) eta hirigintza-garapen berrietan, itunpeko eskolak lehenago ezartzen baitira publikoak baino.<sup>6</sup>

Save the Children ez da hiru ikuspegi horietako baten aldeko. Baina oso garrantzitsua iruditzen zaigu horiek guztiak hezkuntza-ekitatea lehenetsunezko helburutzat hartuta arautzea, aritzea eta ikuskatzea. Horrek esan nahi du kontuan hartu behar direla askatasunez erabakitzeari, eskola-segregazioari eta hezkuntzako lorpenei –bereziki, ikasle kalteberenenak– buruz dauden ikuspegi ezberdinen ondorioak. ●

6 [elDiario.es](http://elDiario.es), 2023.

## 2./ Itunpeko eskolarekiko gizarte-arbuioa

Itunpeko eskolak gizarte mailan duen nolabaiteko arbuioa oztopo garrantzitsua izan daiteke administrazio publikoek, doakotasuna bermatze aldera, itunpeko eskolari finantzaketa hobetzea erabakitzen badute, hemen proposatzen dugun bezala. Gizarteko sektore batzuen irudiko, itunpeko eskolari finantzaketa murriztu egin behar zaio, ez handitu, eta ez dute ondo ikusten itunpeko eskolara zuzendutako euro gehigarri bakoitza. Save the Children erakundeak, halere, uste dugu status quoa dela agertokirik okerrera. Hau da, baliabide publiko ugari erabiltzen dena zerbitzu publiko bat finantzatzeko, baina familia kalteberenak hortik kanpo geratzen direla, finantzaketa hori aski ez delako. Gure ustez, egokiena itunpeko eskolak bere zerbitzu eta jarduerak doan edo hurbileko erreferentziazko eskola publikoen antzeko kostuarekin eskaintzea da, eta horrek horien finantzaketa hobetzea dakar, nahitaez.

Baina, zein dira gizarteak itunpeko eskolarekiko erakusten duen arbuioaren arrazoiak? Seguruenik, arrazoi asko egon dira itunpeko eskolak gizartearen hein batean eragiten duen arbuioaren atzean, baina hemen lau hartuko ditugu kontuan.

**Doakoa ez izatea** eta familia kalteberentzat eskuragarri ez denaren ustea dira, hain zuzen, itunpeko eskolaren ospe txarraren arrazoietakoa bat. Txosten honen beste zati batean aztertuko dugunez, oinarritzko kuota batzuk kobratzea, hilean 50 euro azpikoak direnak barne, traba erabakigarria izan daiteke familia kalteberentzat. Baina EsadeEcPol<sup>7</sup> ikerketa-zentroak duela gutxi argitaratutako txosten batek erakusten duenez, komeni da ere aipatzea itunpeko eskola guztiek ez dituztela kuotak kobratzen, derrigorrezkoak ala borondatezkoak izanik ere, eta horietako askok sinbolikotzat hartuko genituzkeen kuotak kobratzen dituztela (25 euro baino gutxiago, hilean). Itunpeko eskolek familiei kuotak kobratzeko orduan erabiltzen dituzten –eta legearen espirituaren aurkakoak izan daitezken– mekanismo “sortzaileak” dira kuoten kobrantzari lotuta gizarte-arbuioa areagotzen duen beste arrazoietakoa bat. Hasi ikastetxearen hezkuntza-ardatzaren parte diren jarduera osagarrietatik, eta zerbitzu osagarriengatik –jantokia, garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak, doakoak ez diren etapak, autonomia-erkidego batzuetan onarpen-prozesuetan puntu gehigarriak daramatzatenak– kobratzen diren gainprezioetaraino. Zenbait kasutan, kuoten kobrantza “sortzaile” hori hezkuntza-zerbitzu publiko baterako ezinbestekoak ez diren instalazio edo zerbitzuak estaltzeko erabiltzen dira. Itunpeko eskolaren finantzaketa urriak eta ikuskapen eraginkor baten gabeziak pizgarri maltzurak eragin ditu, nonbait. Itunpeko eskolaren zati handienak konponbide “sortzaileak” bilatzen baditu eskaintzen dituen hezkuntza-zerbitzuak finantzatzeko, baliteke arazoaren errua ez izatea itunpeko eskola jakin batzuen, eskola horiek bizi duten araudi- eta finantzaketa-testuinguruarena baizik. Gure ikuspegitik, itunpeko eskolaren finantzaketa

7 Gortazar, Martínez eta Bonal, 2024.

egoki batek, ikuskapen eraginkor batek eta finantzaketa gehigarriaren bidez ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren benetako doakotasunak hobetu egingo lukete, nabarmen hobetu ere, itunpeko eskolaren irudia.

Itunpeko eskolak **kudeatzen dituzten erakundeen artean dagoen aniztasun falta**, eta beraz, erakunde horiek gizarte osoa ordezkatzeko ez dutenaren pertzepzio zabaldua dira itunpeko eskolak gizartean jasotzen duen arbuioaren beste arrazoi garrantzitsuetako bat. Kontu ukalezina da itunpeko eskolak, nagusiki, erakunde erlijiosoen kontrolpean daudela Espainian eta Australia, Frantzia edo Zeelanda Berria bezalako herrialdeetako beste hezkuntza-sistema batzuetan. Espainiaren kasuan, eskola katolikoetakoak ziren itunpeko eskoletan matrikulatutako ikasleen %74 inguru 2021/22 ikasturtean.<sup>8</sup> Gure ikuspegitik, itunpeko eskolak kudeatzen dituzten erakundeetan aniztasuna egonez gero, eragotzi egingo luke horiek sinesmen edo ideologia jakin batzuekin lotzea, eta beraz, hobetu egingo litzateke horiei buruzko irudi publikoa. Azken batean, ondo egongo litzateke itunpeko eskola guztiona den eta guztiontzako eskola bezala ikusia izatea, eta, ildo horretan, uste dugu badagoela oraindik egiteko bidea. Euskadin dugu horren adibiderik garbiena: itunpeko eskola, batik bat, ikastetxe katolikoan eta ikastolen artean banaturik dago, eta oso ezberdinak dira horiek bultzatzen dituzten filosofiak eta gizarte-sektoreak. “Bizefalia” horrek guztientzat zabalik den eskola denaren sentsazioa bultzatzen du, eta horixe da, seguruenik, alderdi kontserbadoreen zein alderdi aurrerakoien aldetik babesa jaso izanaren arrazoa. Horren adierazgarri da EAJk eta EH Bilduk itunpeko eskola %100ean finantzatzeko egindako aliantza (ikus 7. laukia).

**Itunpeko eskolak bere ikasleen “hautaketa” egiten duenaren** ustea da hirugarren arrazoa, eta nolabaiteko arbuioa eragiten du horrek, bereziki autonomia-erkidego batzuetan. Errealitateak, ordea, aurrerago azalduko dugunez, dio hautapen-prozesuak berberak direla eskola publikoarentzat zein itunpekoarentzat, eta, alderatzen jarriz gero, akademikoki ez direla bereziki selektiboak, oro har. Dena dela, hautapen-prozesuetan badira baztertzeko ahalmena duten dinamika eta irizpide batzuk, eta arbuioa eragiten dute. Hori izan daiteke antzinako ikasle izateagatik puntuak ematen dituzten irizpide osagarrien kasua, batik bat, ikastetxeei irizpidezko tasun esanguratsua esleitzen dietetan. Sektore batzuetan, uste da irizpide potentzialki baztertzailer horiek gehiago erabiltzen direla edo inpaktu baztertzailer handiagoa dutela itunpeko eskoletan eskola publikoetan baino. Madrileko eta Gaztela eta Leóngo autonomia-erkidegoetako eskola publikoentzat eta itunpekoentzat, adibidez, aukeratutako irizpide osagarriari erreparatzen badiegu, egia da ahalmen baztertzailer handiagoa nabari zaiela itunpeko eskolek hautatutako irizpideei. Alabaina, aipatu beharra dago itunpeko eskolaren hautaketa-irizpideak, sarritan, horiek jasotzen duten finantzaketa urria konpentsatzeko beharrak bultzatuta ezartzen direla. Madrileko Erkidegoan, adibidez, ohiko irizpidea da haur-eskolen lehen zikloa bertan egina izatea, hor lortutako irabaziek ikastetxean defizitarioak liratekeen beste hezkuntza-zerbitzu batzuk finantzatzeko balio dezaketelako. Hezkuntzako administrazioek potentzial baztertzailer

8 Ikastetxe katolikoak, 2022.

handieneko irizpideak debekatuko balituzte eta onarpen-prozesuak hezkuntza-sailetan zentralizatuko balira, murriztu egingo litzateke itunpeko eskolak bere ikasleak hautatzen dituenaren sentsazioa.

Bukatzeko, iruditeria kolektiboak **itunpeko eskola oro irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin** (kongregazioak, fundazioak eta irabazi asmorik gabeko kooperatibak, esaterako) lotzeak duen garrantzia azpimarratu nahi genuke. Itunpeko eskolara zuzendutako funts publikoek horiek kudeatzen dituzten enpresei irabazi ekonomikoak ekartzen badizkie, arbuio bortitza eragingo luke gizartean eta larriki kaltetuko luke itunpeko eskolaren irudia bere osotasunean. Beraz, zaildu egingo luke itunpekoek finantzaketa hobea jasotzea eta, are, arriskuan jarriko luke horien izatea. Itunpeko eskolaren ospea hobetu nahi badugu, funtsezko kontua da irabazi asmorik gabeko erakundeek kudeatuta egotea eta hezkuntza-ikuskapenak arreta handiz zaintzea ez dela dibidendurik edo kooperatibistentzako soldata puzturik banatzen, irabazien ezkutuko banaketa lekarketenak. Kontua ez da eskolek ez dutela irabazi ekonomikorik sortu behar, horiek hurrengo ekitaldietan instalazioak hobetzeko edo ustekabeei erantzuteko erabil baitaitezke; kontua da irabazirik ez banatzea dibidendu modura edo erabiltzea kooperatibistentzako soldata puztu gisara. •

Ikertzaileek, hirugarren sektoreko erakundeek eta itunpeko eskola gehienak neurri horien (finantzaketa hobea, benetako doakotasuna eta onarpen-prozesu ekitatiboak) alde azaldu ohi dira, baina administrazio publiko batzuen, itunpeko eskolaren sektore baten eta gizartearen zati baten traba izan dute aurrez aurre (ikus 1. laukia). Batetik, administrazio publikoek erresistentzia erakusten dute itunpeko eskolaren benetako doakotasunak lekarkeen kostu ekonomikoagatik eta konplexutasun teknikoagatik, zenbait gobernurentzat itunpeko eskola hezkuntza-zerbitzu publikoetan osorik sartzekak –subsidiariorotasunaren irizpideari esplizituki uko eginez, beraz– ekar diezaieketen kostu politikoaz gain. Bestetik, itunpeko eskola batzuek –hein batean, familien babesarekin eta agintari publikoen utzikeriarekin– nahiago dute “borondatezko” kuotekin jarraitu profil sozioekonomiko jakin bateko familiak erakartzearren. Utzikeria horrekin, nagusiki, familia kalteberenak –murrizturik dute askatasunez hautatzeko eskubidea– eta itunpeko eskola inklusiboak –ez dute baliabide nahikorik jasotzen ikasle kalteberenei proaktiboki erantzuteko– dira kaltetuenak. Eskola publikoak eta eskola pribatu independenteak ere status quoaren biktima sentitzen dira, eta lehia desleiala leporatzen diote itunpeko eskolari. Dena dela, azken hamarkadetan itunpeko eskolak bizi izan duen atzerakada arina ikusita, ez dago oso garbi egungo sistemak itunpeko eskolari mesede (edo kalte larria) egiten dio, globalki hartuta.

Espainiako Langileen Alderdi Sozialistaren (PSOE) ere Sumar alderdiaren artean sinatutako gobernu-akordioak itunpeko eskolaren doakotasunari eskaintzen zion puntu bat.<sup>9</sup> Save the Childrenen ustetan, aukera aparta baten aurrean gaude ikastetxe horien finantzaketa eguneratzeko eta “ezkutuko bidesariak” eta “onarpenerako edozein motatako soslaiak” baztertzeko.

<sup>9</sup> “Eskola-segregazioa borrokatuko dugu funts publikoak jasotzen dituzten itunpeko eskolen moduluak eta funtzionamenduko beste kostu batzuk eguneratuz, horien eskaintza familia guztien eskura egon dadin ziurtatzeko, onarpen-prozesuetan ezkutuko bidesaririk edo edozein motako soslairik gabe, eta funts publikoak dituzten ikastetxeetan sexuaren araberako hezkuntza-segregazioa eragotziz”.



## 2. Zer da itunpeko eskola?

Itunpeko eskola da eragile pribatuek kudeatzen dutena baina finantzaketa publikoa duena, osorik ala zati handienez. Mundu osoan zabaldua dagoen eskola-modalitatea da, nahiz eta ezaugarri oso ezberdinak izan hezkuntza-sistema batzuen eta besteen artean. Hasteko, horiek deitzeko erabiltzen diren izenetan dagoen aldea aipatu behar da. Adibide batzuk ematearren, Txilen hezkuntza partikular/pribatu subentzionatua esaten zaio, Ingalaterran eta Galesen eskola libreak eta akademiak deritze (Free Schools eta AcademiesÇ), Zeelanda Berrian, berriz, Estatuan integratutako eskolak (State-Integrated Schools), Australian eskola katoliko sistemikoak dira (Catholic Systemic Schools), Herbeheretan eskola bereziak (Bijzondere), Frantzia eskola pribatu kontratadunak (Écoles Privées sous Contrat), Suedian eskola independenteak (Friskola), eta Portugalen elkarte-akordio bidezko eskolak (Contratos de Associação). ELGEk gobernuaren mende dauden eskola pribatuak deitzen die (government-dependent private schools), eta eskola pribatu subentzionatu gisa ere ezagutzen dira mundu akademikoan. Beste alde batetik, Espainian askotan eskola pribatu gisa sailkatzen badira ere, beste sistema batzuetan gobernuz kanpokotzat, erdipribatutzat, erdipublikotzat eta, are, publikotzat jotzen dira. Txosten hau irakurri dezaketen irakurleak izen horrekin ezagutzera ohituta daudelakoan, hemen itunpeko eskolak izena erabiliko dugu beti horiei buruz aritzean.

Itunpeko eskolaren antolaketa eta egitura aldatu egiten da hezkuntza-sistemen artean, eta baita honako alderdi hauetan ere, beste batzuen artean:

- **Finantzaketa eta familiei kuotak kobratzea:** Izatez, administrazio publikoek finantzatzen dituzte gehienbat eskola horiek, dela ikastetxeentzako zuzeneko finantzaketa bidez (diru-laguntzak, zerga-onurak...), dela familien bidez (hezkuntza-bonuak, bekak, zerga-onurak...). Hezkuntza-sistema batzuetan, administrazio publikoei dagokie eskola horien finantzaketa, oso-osorik edo ia osorik. Hori da Herbeheretako, Erresuma Batuko eta Suediako kasua, herrialde horietako sistemetan debekatutako dago familiei kuotak kobratzea.<sup>10</sup> Beste kasu batzuetan, itunpeko eskolek eurek estali behar dute kostuen zati bat, normalean familien kuoten bidez. Frantzia, adibidez, administrazio publikoek langileen gastua eta beste gastu arrunt batzuk bakarrik estaltzen dituzte, Australian gastu arruntak bakarrik estaltzen dituzte, eta Zeelanda Berrian langileen gastuak eta kapitalaren eta eraikinak mantentzearen gastuen zati bat bakarrik estaltzen dira. Australian, Danimarkan eta Zeelanda Berrian, besteak beste, legezkoa da kuotak kobratzea.<sup>11</sup> Espainian, itunpeko eskola legez doan izan behar duela ezartzen bada ere, ez dago aski finantzaketarik. Finantzaketa urriegi hori, are, gerta daiteke finantzaketa publikoak –teorian– irakasleen soldatez gain, administrazioko eta zuzendaritzako langileen gastuak eta ikastetxeko mantentze-gastuak eta inbertsio errealean itzulketa barne hartzen duenean.<sup>12</sup> Finantzaketa urriegi horrek, esan bezala, diru-sarreraren eta gastuen

10 Boeskens, 2016.

11 Boeskens, 2016.

12 Madrileko Erkidegoan, adibidez, itunpeko ikastetxe pribatuak mantentzera zuzendutako funts publikoak hiru kapitulutan banatzen dira: irakasleen soldatak (zerga-kargak barne), gastu aldakorak eta bestelako gastuak. Era berean, "bestelako gastuak" kontu-sailean barne hartzen dira administrazioko, zerbitzuetako eta zuzendaritzako langileen soldatak, eta baita mantentze- eta funtzionamendu-gastuak eta inbertsio errealean birjarpena ere (Madrileko Erkidegoko Hezkuntza, Zientzia eta Unibertsitateen Kontseilaritza, 2024).

artean sortzen duen desoreka zuzentzeko, Espainiako itunpeko eskola askok estrategia gutxi-asko sortzaileak asmatu dituzte familiei “borondatezko” kuotak kobratzeko. Badira, halaber, kuoten zatirik handiena eskola publiko hurbilenak ez dituen edo eskaini nahi ez dituen zerbitzu gehigarriak finantzatzeko erabiltzen dituzten eskolak.

- **Onarpen-prozesuetako hautakortasuna:** eskola horiek ez dute normalean beren ikasleak hautatzeko aukerarik, baina hezkuntza-sistema batzuk ahalbidetzen dute hori. Erresuma Batuko eskola libreek eta akademiek, esate baterako, duten sinesmenen arabera hauta dezakete beren ikasleen %50eraino, eta Zeelanda Berriaren eskolaren sinesmenarekin bat egiten duten ikasleei lehentasuna ematen zaie matrikulatzeko. Beste hezkuntza-sistema batzuetan, adibidez Txilekoan, hautatzeko era sotilagoak azaldu izan dira, onarpen-prozesuetan kuotak kobratzea, elkarrizketa barne duten onarpen-prozesu luzeak, edo nahi duten ikasleen profila zedarritzen duten marketin-estrategiak erabilia, esaterako.<sup>13</sup> Espainiaren kasuan, onarpen-prozesuak ez dira bereziki hautakorrak, eta eskolek beren ikasleak hautatzeko gaitasun mugatua dute, normalean. Hala ere, autonomia-erkidego batzuetan ikastetxeei egiazki beren ikasleen profila zedarritzeko gaitasuna ematen dieten irizpide batzuk daude, adibidez irizpide osagarriak deritzanak (ikastetxeek puntuazio gehigarria emateko aukeratzen dituzten irizpide gutxi-asko hautazkoak) edo eskatzailea edo horren senidea antzinako ikaslea izatearen baldintza.
- **Irabazi asmoa:** itunpeko eskolak irabazi asmorik gabe aritzea da ohikoa. Hori da, adibidez, Txileren (2015eko erreformaz geroztik) edo Frantziaren kasua. Beste hezkuntza-sistema batzuetan, ordea, eskola horiek irabazi asmoak bultzatuta aritu daitezke, Espainian, Estatu Batuetan (zenbait estatutan), Estonian eta Suedian gertatzen den moduan.<sup>14</sup><sup>15</sup> Nolanahi ere den, itunpeko eskola gehienak irabazi asmorik gabekoak dira, baita irabazi asmokoak izatea baimentzen duten hezkuntza-sistemetan ere. Hori da Espainiako hezkuntza-sistemaren kasua.
- **Autonomia:** itunpeko eskolek eskola publikoek baino autonomia handiagoa izan ohi dute. Hezkuntza-sistemaren arabera, autonomia handiago hori baliabide finantzarioak kudeatzeko, beren irakasleak aukeratzeko, curriculuma moldatzeko, testu-liburuak aukeratzeko edo eskola-jardunaldia egituratzeko duten askatasun handiagoan gauzatzen da. Dena dela, itunpeko eskolaren finantzaketa publikoak nolabaiteko erregulazio bat dakar berekin. Hori dela eta, eskola horiek izatez arau eta ikuskapen gehiago dituzte eskola pribatu independenteek baino.
- **Hezkidetzatza:** itunpeko eskolan gauza normala da haurren hezkidetzatza. Frantzian, esaterako, 1975. urteko Haby legeak hezkidetzatza ezarri zuen, eta debekatu egin zuen hezkuntza-sisteman sexuaren araberako segregazioa, nahiz eta eskola pribatu independente batzuk (non-mixité scolaire) oraindik hori egiten jarraitzen duten.<sup>16</sup> LOMLOEren (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa aldatzeko Lege Organikoa) hogeita bosgarren xedapen gehigarriak hauxe ezartzen du: “eskubide- eta aukera-berdintasuna bultzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko, funts publikoekin partzialki edo

13 Zancajo, 2019.

14 Boeskens, 2016.

15 Casares eta Vidal (2024).

16 *The Conversation*, 2020.

erabat sostengatutako ikastetxeek hezkidetzaren printzipioa garatuko dute hezkuntza-etapa guztietan”, eta “ikasleak ez dituzte generoaren arabera bananduko”. Australia, Ingalaterra eta Zeelanda Berria bezalako herrialde anglosaxoiengan, ordea, zabalduago daude funts publikoak jasotzen dituzten single-sex schools deritzanak, hau da, “sexu bakarreko eskolak”, gehienak bestelakoak badira ere. Australian, esaterako, sexuaren arabera banatzen duten 300 ikastetxe inguru daude, eta horien erdiak itunpekoak dira, herena pribatu independenteak dira, eta horien seirena publikoak.<sup>17</sup> Zeelanda Berrian, funts publikoen laguntzarekin funtzionatzen duten Bigarren Hezkuntzako eskoletan matrikulatutako ikasleen %20, gutxi gorabehera, sexuaren arabera banatzen zuten ikastetxeetan zeuden.<sup>18 19</sup>

### **3. Itunpeko eskolaren presentzia**

Eragile pribatuek kudeatutako ikastetxeen finantzaketa publikoa oso hedatuta dago hezkuntza-sistema batzuetan (3. grafikoa). 2022ko PISAren lagin-datuen arabera, 15 urteko ikasleen erdia baino gehiago itunpeko eskoletara joaten zen 2022an Erresuma Batuan, Herbeheretan, Belgikan eta Txilen. Grezia, Letonia, Italia, Suitza, Costa Rica eta Japonia bezalako herrialdeetako hezkuntza-sistemetan, aldiz, ia ez dago mota horretako eskolarik, horietan matrikulatutako ikasleak ez ziren %2ra heltzen. Espainian, laginaren %24a itunpeko ikastetxeetan matrikulatuta zegoen (portzentaje ofiziala baino apur bat gutxiago), eta ELGEko herrialdeen artean goialdeko postuetan zegoen.

#### ***Itunpeko eskola gehiengoa da Erresuma Batuan, Herbeheretan, Belgikan eta Txilen, eta presentzia marjinala du, aldiz, Grezian, Letonian eta Italian.***


Harrigarriagoak dira, ziurrenik, autonomia-erkidegoen arteko aldeak (4. grafikoa). Itunpeko ikastetxe horien araudia oso antzekoa den arren autonomia-erkidego batetik bestera, nabarmen aldatzen da ikastetxe horietara joaten den ikasleen portzentajea. Alde batean, Euskadi, Madrileko Erkidegoa, Errioxa, Nafarroa eta Gaztela eta León daude; hiru ikasletik bat, gutxienez, Lehen Mailako eta Derrigorrezko Bigarren Mailako itunpeko ikastetxe batean matrikulatuta zegoen 2020-21 ikasturtean. Beste aldean, Ceuta, Extremadura, Kanariak, Melilla, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa aurkitzen dira, non lautik bat ere ez baitzen joaten ikastetxe horietara (ikus 3. laukia emaitza horiek bere testuinguruan jartzeko). Alderik handiena Euskadiren eta Gaztela-Mantxaren artean ematen da. Aurrenekoan, ikasleen erdia, gutxi gorabehera, itunpeko ikastetxe batean matrikulatuta zegoen; Gaztela-Mantxan, berriz, ez zen %18ra heltzen mota horretako ikastetxeetara joaten zen ikasleria.

17 *Financial Review, 2023.*

18 *Kiwiblog, 2021.*


19 *Ministry of Education (Nueva Zelanda), 2021.*

3. grafikoa. **Eskola-motak ELGEko herrialdeetan, 2022ko PISA.**



Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuetan oinarrituta.

4. grafikoa. **Itunpeko eskolaren tamaina 2020-21 ikasturtean, autonomia-erkidegoaren arabera.**



Iturria: egileak egina Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren datuetan oinarrituta.

### 3./ Zergatik dago horren itunpeko eskola gutxi Andaluzian?


Espanian eta, hein batean, gainerako hezkuntza-sistemetan itunpeko eskola egotearen arrazoietakoa bat da familiek askatasunez hautatzeko duten eskubidearen bermea, batik bat, euren seme-alabek hezkuntza erlijiosoa jasotzea nahi duten familiena. Ikerketa Soziologikoaren Zentroaren (gaztelaniaz, CIS) inkesta ugarik erakutsi dutenez Andaluzia dela sinestun-kopuru gehien den autonomia-erkidegoetako bat (Cabrera Rodríguez eta González, 2023), nola da posible itunpeko eskola gutxien duen autonomia-erkidegoetako bat izatea? Egiari zor, Andaluziarena ez da kasu bakanetakoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan itunpeko eskolak duen presentzia eta autonomia-erkidegoaren araberrako erlijiotasun maila xehetasunez aztertzen badugu, ikusi daiteke sinestun-portzentaje handieneko autonomia-erkidegoetan (Andaluzia, Kanariak, Gaztela-Mantxa eta Extremadura) duela, hain zuzen ere, itunpeko eskolak presentzia txikiena (5.a grafikoa). Erlijiositate-maila txikiagoa ez bada, zerk azaltzen du, orduan, itunpeko eskola gutxiago egotea autonomia-erkidego batzuetan?

**Landatasuna** da hipotesirik arrazoizkoenetakoa. Landa eremuko udalerriek ez dute aski populaziorik eskola garaian hezkuntzako eskaintza pribaturik egoteko, eta beraz, udalerririk horietan ikastetxe publiko bakarria egotea da normalena, eta institutu publiko bakar bat tamaina handiagokoetan. Halaxe da, autonomia-erkidego bakoitzean itunpeko eskolaren presentzia eta landako populazioaren portzentajea aztertzen baditugu, ikusiko dugu landa eremu gehieneko autonomia-erkidegoetan itunpeko eskola gutxiago dagoela autonomia-erkidego hiritarragoetan baita (5.b grafikoa). Azalpeneko %18ko bariantza bat dela, ordea, landatasunak neurri bateraino bakarrik azaldu dezake egitate hori. Hipotesi horrek, gainera, ez digu laguntzen Andaluzian itunpeko eskola gutxiago zergatik dagoen azaltzen, landatasun-maila ertaina duelako espainiar testuinguruan.

Egiazki, **familien gaitasun ekonomikoa** da hipotesirik indartsuena. Itunpeko eskola gehienak ez daude familia erlijioso gehien den tokietan, itunpeko eskola gehienek kalitateko hezkuntza-zerbitzuak eskaintzeko jarri behar izaten dituzten kuotak ordaintzeko aski gaitasun ekonomiko dituzten familiak dauden tokietan baizik. 5.c grafikoak argi eta garbi erakusten du itunpeko eskola gehien BPGko per capita handiena duten autonomia-erkidegoetan dagoela, Euskadin, Madrileko Erkidegoan eta Nafarroan, kasu. Hiru autonomia-erkidego horietan, hiru ikasletik bat, gutxienez, itunpeko ikastetxeetara joaten zen 2020-21 ikasturtean. Andaluzian eta BPGko per capitarik txikiena duten beste hiru autonomia-erkidegoetan (Kanariak, Gaztela-Mantxa eta Extremadura), berriz, ez zen %25era heltzen itundutako ikastetxeetara joaten zen ikasleriaren portzentajea. Azalpeneko %69ko bariantza bat dela, autonomia-erkidegoen maila ekonomikoak azalpen-ahalmen aparta duela dirudi.



5. grafikoa. **Autonomia-erkidegoetan itunpeko eskola egoteari lotutako faktoreak, 2020-21 ikasturtea.**



Iturria: (a) egileak egina Hezkuntzaren 2023ko Adierazleen Estatuko Sistemaren datuekin, eta Cabrera Rodríguez eta González (2023); (b) eta ((c): egileak egina 2023ko Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren eta Estatistikako Institutu Nazionalaren datuekin.


Andaluzian itunpeko eskolak zergatik duen horren presentzia mugatua dioen hasierako galderari erantzunez, itunpeko eskola finantzaketa pribatua bilatzera eta gaitasun ekonomiko -konparatiboki- mugatua duten familiak erakartzera bultzatzen duen testuinguru normatibo eta finantzario batekin lotuta dago.●

## Zarata asko eta aldaketa gutxi: Espainiako itunpeko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleriaren bilakaera

Hainbat gizarte-sektoretan, itunpeko eskolak azken urteotan eskola publikoaren kontura kopuruan eta ikasleetan hasi egin direnaren ustea dago. Badira, halaber, itunpeko eskolaren finantzaketa urriak eta jaiotze-tasa baxuak itunpeko eskola desagertzera bultzatzen ari direla dioten ahotsak ere. Egiari zor, Espainiako itunpeko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen bilakaera laburtzen duen hitz bat hautatu beharko bagenu, **egonkortasuna** da hitza.


Lehen Hezkuntzara etorrita, ikusten dugu itunpeko ikastetxetan matrikulatutako ikasleak 2001ean %30,1 izatetik 2020an %28,4 izatera igaro direla. Jaitsiera arin hori 2000ko hamarkadan eman zen, batez ere. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), berriz, jaitsiera txikiagoa izan zen aldi horretan, matrikulatutako ikasle kopurua %30,5etik %29,6ra igaro baitzen. Beste hezkuntza-maila batzuetan ere egonkortasuna izan da nagusi azken hamar urteotan, haur-eskolako bigarren zikloaren salbuespen bakarrarekin (7. grafikoa). Itunpeko ikastetxeetan maila horretan matrikulatutako ikasle kopurua pixkana igo egin da, Lehen Mailako Hezkuntzan den portzentajea berdintzeraino. Berdintze hori logikoa da, hezkuntzako etapa hori unibertsaldu egin delako eta bi zikloek gero eta antz handiago dutelako finantzaketaren, antolaketa-aren eta onarpen-prozesuaren aldetik.

6. grafikoa. **Itunpeko eskoletako Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikulazioaren bilakaera, 2001-2020.**



Iturria: egileak egina 2023ko Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren datuekin.


7. grafikoa. Itunpeko eskoletako hezkuntza-maila guztietako matrikulazioaren bilakaera, 2011-2020.



Iturria: egileak egin 2023ko Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren datuekin.

## Murtziako Erregioa, Madrileko Erkidegoa eta Errioxa dira itunpeko eskolak azken urteetan gora egin duen bakarrak

8. grafikoa. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikulazioaren arteko aldea 2020. eta 2010. urteen bitartean, autonomia-erkidegoar.



Matrikulazioa apur bat igo egin da Madrileko Erkidegoan eta nabarmen jaitsi da Katalunian.

Iturria: egileak egin 2023ko Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren datuekin.

2010eko hamarkadan itunpeko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen bilakaerak aldaketa nabarmena izan zuen autonomia-erkidegoen artean (8. grafikoa). Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, itunpeko eskola hazi egin zen Murtziako Erregioan, Madrileko Erkidegoan eta Errioxan, eta jaitsi egin zen, bereziki, Ceutan, Katalunian, Kantabrian, Balear Irletan eta Aragoian. Nahiz eta aldiroko aldaketa oso handirik ez izan, Madrileko Erkidegoan itunpeko eskola ugartzen eta Katalunian ahultzen ari denaren irudia bilakaera errealean oinarritzen da, hein batean behintzat.

#### **4. Itunpeko eskolako ikasleriaren gizarte-eraketa, eta horren alderaketa eskola publikoakarekin**


Espanian zabaldua dago itunpeko eskolak, batez ere, klase ertaineko eta altuko ikasleak erakartzen dituen eta eskola publikoak ikasle kalteberenak biltzen dituen ustea. 2022ko PISAren datuek berresten dute eskola publikoen eta itunpekoen arteko arrakala hori hezkuntza-sistema gehienetan ematen dela, eta egoera hobereeneko ikasleak gainordezkaturik daudela itunpeko eskoletan eta egoera okerreneko ikasleak gainordezkaturik eskola publikoetan (9.a grafikoa). Aztertu izan ditugun hezkuntza-sistemen artean, **Espainiak azaltzen du arrakala sozioekonomikorik nabarmenena eskola publikoen eta itunpekoen artean**. Beraz, ez da harritzekoa Espainiak izatea ikastetxeen artean dauden diferentzia sozioekonomikoak, gehienbat, sareko publiko eskolen eta itunpeko eskolen artean dauden diferentzia sozioekonomikoengatik eragindako hezkuntza-sistema. (10. grafikoa). Espainiaren kasuan, eskola-segregazioaren ia %21 itunpeko eskolen eta eskola publikoen arteko eraketa sozioekonomiko desberdinarengatik gertatzen da. Datu horrek kasu berezia bihurtzen du Espainia, tamalez. Aldera dezagun, adibidez, Herbeheretako, Hego Koreako, Frantziako edo Erresuma Batuko hezkuntza-sistemekin. Horietan, eskolen arteko diferentzia sozioekonomikoak sare horietako bakoitzaren barruan bakarrik ematen dira, eta beraz, eskola-segregazioa ez du itunpeko eskolak eragiten. Laburbilduz, Espainiako hezkuntza-sisteman arrakala sozioekonomiko handia dago eskola publikoen eta itunpekoen artean, eta arrakala horrek azaltzen du eskola-segregazioaren zergatiaren zati esanguratsu bat.

***Espainiakoa da itunpeko ikastetxeen eta ikastetxe publikoen artean arrakala sozioekonomikorik handiena duen hezkuntza-sistema.***

Interesgarriena zera da, itunpeko eskolaren eta eskola-segregazioaren arteko harremana ez dela unibertsala. **Erresuma Batuko edo Herbeheretako hezkuntza-sistemek –batean zein bestean, itunpeko eskola gehiengoa da– erakusten dute eskola publikoetara eta itunpekoetara joaten diren ikasleek antzeko ezaugarri soziodemografikoak izan ditzaketela**. Zeelanda Berria, Hego Korea, Hungaria edo Turkia bezalako beste hezkuntza-sistema batzuetan, oso antzekoa da, halaber, eskola publikoetara eta itunpekoetara joaten diren ikasleen profil sozioekonomikoa.


Espanian, arrakala sozioekonomikoa dago autonomia-erkidego guztietan itunpeko eskoletara eta publikoetara joaten diren ikasleen artean, Galizia kenduta, hor den aldeaz ez baita estatistikoki esanguratsua (9.b grafikoa). Ikasleen profil sozioekonomikoaren eta itunpeko eskoletara joatearen artean harreman indartsuago duten erkidegoen artean daude Murtziako Erregioa, Madrileko Erkidegoa, Kanariak, Errioxa eta Extremadura.

9. grafikoa. **Itunpeko eskoletako eta eskola publikoetako ikasleen profil sozioekonomikoaren arteko aldeak, 2022ko PISA.**



Oharra: tonu ilunean azaltzen dira estatistikoki esanguratsuak diren aldeak. Iturria: egileak egin 2022ko PISAren datuetan oinarrituta.

10. grafikoa. **Sare publikoen eta itunpekoen eskolen barruan eta horien artean diren diferentzia sozioekonomikoak, 2022ko PISA.**




Oharra: lagina funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetara murriztu da. (\*) Ikastetxeen arteko desberdintasun sozioekonomikoak dira eskola-segregazioa neurtzeko modu bat. Iturria: egileak egin 2022ko PISAren datuetan oinarrituta.



## 5. Itunpeko eskolako atzerritar jatorriko ikasleak, eta horren alderaketa eskola publikoko ikasleekin

Era berean, zabaldua dago atzerritar jatorriko ikasleria eskola publikoan biltzen denaren eta bertako familiak itunpeko eskolan gainordezkaturik daudenaren ustea. Hori da Frantzia, Danimarka, Portugal, Espainia, Txile eta Australiaren kasua. Herrialde horietan, atzerritar jatorriko ikasleak (atzerrian jaiotakoak zein atzerrian jaiotako gurasoak dituztenak) portzentaje esanguratsuki handiagoan daude eskola publikoan itunpekoan baino (11. grafikoa). Aldea bereziki nabarmena da Frantzian, baina horrek ez gintuzke gehiegi harritu behar, horko hezkuntza-sistemako itunpeko eskolek jasotzen dutelako finantzaketa publiko gutxien eta itunpeko eskolek osagai nabarmen erlijiosoa (gehienbat, katolikoak) dutelako, %96raino helduz frantziar kontu-auzitegiaren arabera. **Espainiaren kasuan, eskola publikoetako ikasleen %18a atzerritar jatorrikoa zen, itunpeko eskolan portzentajea %10ekoa zen bitartean.**

11. grafikoa. Atzerritar jatorriko ikasleen portzentajea eskola publikoetan eta itunpekoetan, 2022ko PISA.



**Espainian, etorkin jatorriko ikasleen ordezkartza txikiagoa da itunpeko eskolan, baina publikoaren-itunduaren arteko arrakala txikiagoa da Frantzian, Danimarkan eta Portugalen ematen dena baino.**


Oharra: tonu ilunetan azaltzen dira estatistikoki esanguratsuak diren aldeak. Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuekin.

Autonomia-erkidegoen administrazio-datuek **alde handiak erakusten dituzte hezkuntzako ikastetxe publikoen eta itunpekoen artean atzerritar herritartasuneko populazioaren zifrei dagokionez** (12. grafikoa). Espainian, batez beste, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen %11k atzerritar herritartasuna zeukan, itunpeko eskoletan azaltzen den portzentajearen halako bi, ia-ia (%6). Arrakala bereziki garrantzitsua zen Melillan, Murtziako Erregioan, Errioxan, Valentziako Erkidegoan, Nafarroan, Madrileko Erkidegoan eta Kanarrietan. Galizian, Kantabrian eta Extremaduran, aldiz, arrakala hutsaren hurrengoa zen. Bereziki harrigarria da Melillaren kasua: eskola publikoetako ikasleen %12a atzerritar jatorrikoa zen, eta itunpeko eskoletan ez zegoen

atzerriko ikaslerik (%). Bere ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko arrakalaren arabera autonomia-erkidegoek duten hurrenkera oso antzekoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, atzerriko irakasleen portzentaje globalki murriztuagoak dituzten arren.

## **Melilla eta Murziako Erregioan ematen dira alderik handienak atzerriko nazionalitatea duten ikasleen matrikulazioan eskola publikoen eta itunpekoen artean.**


12. grafikoa. Eskola publikoetako eta itunpeko eskoletako atzerritar herritartasuneko ikasleen portzentajea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 2020-21 ikasturtea.



Iturria: egileak egina 2023ko Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren datuekin.

Hezkuntza Ministerioaren administrazio-datuek ere aldeak erakusten dituzte eskola publikoen eta itunpekoen artean Hezkuntza Laguntzako Berariazko Premiak (HLBP) eta Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleei dagokionez, alde horiek ez izan arren horren nabarmenak (13. grafikoa). **Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikastetxe publikoetara joaten zen ikasleen %14,5, gutxi gorabehera, HLBP gisa sailkatuta zegoen, itunpeko ikastetxeetan portzentaje hori %9,5ekoa zelarik Lehen Hezkuntzan eta %12koa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.** HBPri dagokionez, aldeak txikiagoak ziren. Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen %3,7 HBP gisa sailkatuta zegoen, itunpekoetan %2,4 ziren bitartean; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, zifrak %3,5 eta %3,1 ziren, hurrenez hurren.

13. grafikoa. **Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskola publikoetan eta itunpekoetan, 2020-21 ikasturtea.**



Iturria: egileak egina 2023ko Hezkuntza Adierazleen Estatuko Sistemaren datuekin.

## 6. Hautatzeko askatasuna bermatzen: Itunpeko eskolaren doakotasuna

### Gastu neurritsua, baina jasanezina familia kalteberentzat

Espainiako itunpeko eskola gehienek oinarrizko kuota batzuk (ezberdinak autonomia-erkidego batetik bestera zein horien barruan) kobratzen dizkiete familiei. Garlic B2B agentziak Ikasleen Gurasoen Elkartearen Espainiako Konfederazioarentzat (gaztelaniaz, CEAPA) eta Ikastetxe Pribatu eta Independenteen Elkartearentzat (gaztelaniaz, CICAIE)<sup>20</sup> 2023-2024 ikasturtean "Itunpeko Eskolen Kuoten eta Prezioen Azterketa" izeneko txostenaren arabera, itunpeko eskolen %87k oinarrizko kuota bat kobratzen dute, Kataluniakoak (215 €), Madrileko Erkidegokoak (129 €) eta Euskadikoak (100 €) izanik hilekobatez besteko kuota handienak. EsadeEcPolen azterlan berriago batek,<sup>21</sup> datu osoago eta adierazgarriagoak bilduta, kuotak ordaintzen dituen ikasleen antzeko portzentaje bat zenbatetsi du (%80 inguru, derrigorrezko hezkuntzan), nahiz eta zenbatetsitako zenbateko horiek askoz txikiagoak diren CEAPAren eta CICAERen urteko txostenean azaltzen direnak

20 Garlic B2B (2023)

21 Gortazar, Martínez eta Bonal, 2024.

baino:<sup>22</sup> 68 € Lehen Hezkuntzan, eta 57 € Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan espainiar lurralde osoan, eta 140 €, 93 € eta 90 €, hurrenez hurren, kuota altuenak dituzten hiru autonomia-erkidegoetan, hots, Katalunian, Euskadin eta Madrileko Erkidegoan.

Zenbateko horiek jasagarriak dira klase ertaineko familia gehienentzat, baina ez da ezinbestean hala gertatzen familia kalteberen kasuan, argi eta garbi murriztuta dutelako funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeen artean hautatzeko euren gaitasuna. Adibidez, bi pertsona heldu bi seme-alabekin bizi direneko familia batek, eskuragarri dagoen errenta baxueneko dezilean denak (9.154 €, urtean), etxeko hileko diru-sarreraren %6,6 zuzendu beharko luke beren bi seme-alabak hilean 25 €-ko oinarrizko kuota kobratzen duen itunpeko eskola batean; %13,1, hileko kuota 50 € balira; %26,2, hileko kuota 100 € balira; eta %52,4, hileko kuota 200 € balira (14. grafikoa). Egoera jasagarriagoa litzateke bigarren dezileko (20.383 €, urtean) familientzat: eskuratzen duten errenta garbiaren %2,9 zuzendu beharko lukete kuotak 25 €-koak izanez gero; baina zailagoa izango litzaiotke 50 €-ko (errentaren %5,9), 100 €-ko (errentaren %11,8) eta 200 €-ko (errentaren %23,6) kuotak balira. Kuota handiago dituzten (150 €-tik gorakoak) itunpeko eskolen kasuan, ahalegin ekonomiko jasanezina litzateke errenta ertaineko familientzat ere, nahiz eta, egiazki, horrelako eskola gutxi diren eta, gehienbat, profil sozioekonomiko altuko auzo eta udalerrietan dauden.

Gainera, kontuan izan behar da kalkulu horiek ez dituztela barne hartzen itunpeko eskolari lotutako beste gastu batzuk, eskolako uniformeak edo zerbitzu osagarriak (jantokia, garraioa, eskolako irteerak), esaterako. Horien prezioak, oro har, aldera daitezkeen eskola publikoenak baino handiagoak izaten dira. Egitez, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartearen (gaztelaniaz, OCU) arabera, eskolako adinean seme-alabak dituzten bere bazkideen artean egindako azterketa batek dio seme-alabako batez besteko gastua 1.060 €-koa dela eskola publikoan, 3.045 €-koa itunpeko eskolan (Batxilergoa barne hartuta, gehienetan itunpekotik kanpo dena) eta 7.030 €-koa eskola pribatuan.<sup>23</sup> Eskola publikoarekin alderatuta, itunpeko eskolaren batez besteko gastu gehiena zerbitzu gehiago edo hobeagoak (adib., eskola-jantokia, seigarren irakastordua, ordutegi zabaldua) emateari lotuta egon badaiteke ere, horrek ez du ukatzen seme-alaba bakoitzeko hezkuntzan 3.000 € inguru ordaintzea finantzarioko ezinezkoa denik familia sozioekonomikoki kalteberenentzat. Egitez, errenta baxueneko dezilean den bi heldu eta bi seme-alabek osatutako etxe batean, itunpeko eskolako eskolatzeari lotutako gastuak euren diru-sarrerara guztien bi heren litezke, goiti-beheti. Edozelan ere, auzo apalagoetako itunpeko eskolari lotutako familiako gastua OCUK bere bazkideentzat batzaz beste kalkulaturako 3.045 € horietatik urrun egongo da, ziurrenik.

Kuota horiei gehitu behar zaie eskola horietara joaten diren ikasleek zailtasun handiago dituztela beka eta laguntza jakin batzuk lortzeko autonomia-erkidego batzuetan.

Eta ez dira soilik familiek ordaindu behar dituzten oinarrizko kuotak eta itunpeko eskolako ikasleek beka eskuratzeko duten aukera urriagoa; hor dago, halaber, ikastetxe horietan eskolatzegatik kostuari buruzko egonezina ere, dela ikastetxe batzuen gardentasun faltagatik, dela ikastetxe horien finantzaketa publikoak bizi duen ziurgabetasunagatik. Kasu batzuetan, egonezin horrek zerikusia du kuotei buruzko gardentasun faltarekin

22 CEAPAK eta CICAk eta EsadeEc-Polek datuen iturri ezberdinak erabiltzen dituzte, horregatik zenbatesten dituzte zenbateko ezberdinak euren txostenetan. Alde batetik, Garlic B2B agentziak CEAParentzat eta CICArentzat egindako urteko azterlanak Mystery Shopper metodoa erabiltzen du, hau da, kostuei buruzko informazioa beren seme-alaben matrikulazioa simulatzen duten familietatik lortzen du. Beste aldetik, EsadeEc-Polen txostenak Estatistika Institutu Nazionalak egiten dituen Familien Hezkuntzako Gastuari buruzko Inkesta eta Irakaskuntza Pribatuaren Finantzaketari eta Gastuei buruzko Inkesta uztartzen ditu.


23 OCU, 2023.

eta eskolako materiala bezalako oinarrizko beste hezkuntza-gastu batzuekin; beste kasu batzuetan, berriz, zerkusia du itunpeko eskolaren zerbitzu eta jarduera osagarriekin, esaterako eskolako uniformeak, eskolako ordainduzko irteera gehiago izatea, edo jantoki-zerbitzuaren prezio izugarria; azkenik, ziurgabetasun horrek zerkusia du ikastetxe horien finantzaketa publikoarekin ere, aldatu, atzeratu edo, muturreko kasuetan, guztiz desagertu egin baitaiteke ikasturte batetik bestera (ikus 6. laukia).

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta familiako aurrekontuaren zatirik handiena normalean oinarrizko zerbitzuetara (etxebizitza, garraioa, janariak, higiena, arropa) zuzentzen duten familiez ari garenez,<sup>24</sup> eskola publikora joatea da familia kalteberenen erabakirik arrazoizkoena, baita itunpeko eskola bat nahiago dutenen kasuan ere.

Bi helduko eta bi seme-alabako familia batek beren hileko errenta garbitik kuotetara zuzentzen duten ehunekoa

Bi helduko eta bi seme-alabako familia batek beren hileko errenta garbitik kuotetara zuzentzen duten ehunekoa



Iturria: egileak egin Bizi-baldintzen Inkestaren datuekin (2023).

Familia kalteberenen erabakia horren baldintzaturik dago, ezin dugularik esan ikastetxea hautatzeko askatasuna dutela. Askatasun falta horrek, gainera, ondorioak dakartza. PISA txostenak behin eta berriz erakutsi izan du nola, eskola hautatzeko orduan, egoera okerreko familiek garrantzi handiagoa ematen dietela irizpide ekonomikoari egoera oneko familiek baino. Eta, tamalez, kalitate-irizpideen kalterako egiten dutela hautaketa hori, adibidez errendimendu akademikoa edo eskolaren ospea.<sup>25</sup> Horren haritik, 2015eko PISAren datuek (etxeei egindako inkestetan Espainiak parte hartu zuen azken aldia) erakusten dute eskolako gastuengatik kezkatuak zeuden gurasoak zituzten ikasleek probabilitate handiagoa zutelako eskola publikora joateko, itunpeko eskolarekiko arrakala izanik aztertutako hezkuntza-sistemaren bigarren arrazoirik nagusia (15. grafikoa). Horregatik, familia kalteberenek hautatzeko askatasun gehiago izan dezaten eta, batez


24 Save the Children (2022)

25 ELGE, 2015.



ere, beren seme-alabentzat eskola aukeratzeko orduan kalitate-irizpideek merezi duten garrantzia izan dezaten, funtsezkoa da funts publikoekin lagundutako eskola guztien erabateko doakotasuna bermatzea, itunpekoena barne.

15. grafikoa. **Eskolako gastuek eskolaren hautaketan duten garrantzia, seme-alaben ikastetxearen titulartasunaren arabera**



Iturria: egileak egina 2015eko PISAren datuekin.

**Espainian, seme-alabak eskola publikoetara eramaten dituzten gurasoek garrantzi handiagoa ematen diete eskola-gastuei itunpeko eskoletara joaten diren seme-alabak dituzten gurasoek baino.**

### Iturri pribatuek itunpeko eskolaren finantzaketan duten garrantzia

Espainiako hezkuntza-sistema ez da salbuespena itunpeko eskolen egiazko doakotasun ezari dagokionez. Belgikako komunitate frankofonoan, esaterako, urteko eskolatzearen batez bestekoa 366 €-tan zen Lehen Hezkuntzan eta 650 €-tan Bigarren Hezkuntzan.<sup>26</sup> Frantzia, eskola katolikoaren federazioaren beraren arabera, urteko eskolatzearen batez bestekoa 476 € zen Lehen Hezkuntzan, 816 € Bigarren Hezkuntzako lehen etapan, eta 1.159 € Bigarren Hezkuntzako bigarren etapan,<sup>27</sup> nahiz eta PISAren datuek zenbateko horiek baino apur bat handiagoak iradokitzen dituen, behintzat Bigarren Hezkuntzan (16. grafikoa). Australian, Danimarkan eta Zeelanda Berrian, eskolek familiei derrigorrezko kuotak kobratzeko eskubidea dute, zenbatekoak sendo araututa egon daitezken arren. Zeelanda Berrian, esaterako, hezkuntzako kuotak mugatuta daude, eta eskolako instalazioak hobetzera bakarrik zuzen daitezke, horiekin aldera daitezken eskola publikoen estandarrei jarraituta.<sup>28</sup>

### Espainia nabarmentzen da itunpeko eskolaren finantzaketa pribatua handiagoa den herrialdeen artean.


26 L’Avenir, 2023.

27 Enseignement catholique, 2024.

28 Private Schools Conditional Integration Act 1975.

Horren haritik, 2022ko PISAren datuek erakusten dute iturri pribatuak itunpeko eskolaren diru-sarreraren %5, gutxienez, badirela herrialde gehienetan, familiaren bizkar egonez finantzaketa pribatu horren zatirik handiena (16. grafikoa). **Espainian, diru-sarreraren %22ra heltzen da,<sup>29</sup> eta itunpeko eskolaren finantzaketa pribatua handiena den herrialdeen buruan dago, Frantzia, Australia, Danimarka eta Estonia bakarrik dituelarik aurretik.** Horrez gainera, interesgarria da ohartzea Espainia nabarmentzen dela dohaintzen eta bestelako finantzaketa pribatuko iturrien garrantziagatik, iturri pribatu horien hein handi bat, gainera, balitekeela ikastetxeko familien sositatik etortzea. Finantzaketa urri hori estaltzeko asmoz, itunpeko eskola askok dohaintzak eskatzen dizkiete familiei edo gainprezioak kobratzen dizkiete zerbitzu eta jarduera osagarriengatik, normalean borondatezkoak direnak, hala nola eskola-jantokia, eskolako irteerak, eskolaz kanpoko jarduerak, haur-eskolako lehen zikloa, eskolako garraioa eta uniformeak.

16. grafikoa. Itunpeko eskolaren finantzaketa-iturriak



Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuekin.

### Itunpeko eskolen finantzaketa publikoa eta pribatua eta ikasleriaren profil sozioekonomikoa


Beharbada, hori baino garrantzitsuagoa izan daiteke ikustea itunpeko eskolaren finantzaketa publikoa, antza, eskola publikoetan eta itunpekoetan matrikulatutako ikasleen artean nabaritzen diren diferentzia sozioekonomikoei lotuta dagoela. 17. grafikoa erakusten duenez, eskola publikoetako eta itunpekoetako ikasleen profil sozioekonomikoa antzekoagoa da itunpeko eskolak finantzaketa publiko handiagoa jasotzen duen hezkuntza-sistemetan. Egiazki, eta Zeelanda Berriaren salbuespena salbuespen, eskola publikoetara eta itunpekoetara joaten diren ikasleen artean antzeko ezaugarri soziodemografikoak

29 Horren haritik, aipatzekoa da ezen, EsadeEcPolek Espainian itunpeko eskolan sartzeko kostuari buruzko egindako txostenaren arabera (Gortazar, Martínez eta Bonal, 2024), hezkuntzako kuotek eratu zutela itunpeko eskolaren diru-sarreraren %16,9. Ehuneko ia berbera lortzen da PISAren datuekin kuotak (%12,9) eta dohaintzak (%4,4) batzearen ondori

dituzten hezkuntza-sistema guztietan, administrazio publikoek jartzen dute itunpeko eskolaren diru-sarreraren %94 edo gehiago, eta beraz, finantzaketaren zati oso eskasa eratzen dute familiei kobratutako kuotek.

## **Itunpeko eskolak finantzaketa publiko handiagoa du eskola publikoetako eta itunpeko eskoletako ikasleek antzeko ezaugarri soziodemografikoak dituzten hezkuntza-sistemetan.**

17. grafikoa. **Itunpeko eskolaren finantzaketa publikoa eta eskola publikoetan eta itunpekoetan matrikulatutako ikasleen arteko diferentzia sozioekonomikoak**



Oharra: R<sup>2</sup> da azaldutako bariantzaren proportzioa, eta bi aldagaien arteko maila neurtzeko erabiltzen da. Iturria: egileak egin 2022ko PISAren datuekin.

**Itunpeko ikastetxeek zenbat eta finantzaketa publiko handiagoa izan, orduan eta txikiagoa itunpeko ikastetxeen eta publikoen arteko arrakala sozioekonomikoa.**

Antzeko emaitzak lortzen dira aztertu izan ditugun hezkuntza-sistema bakoitzean kontu hori bera aztertzen badugu. Eskola baten finantzaketa pribatua handitzen doan neurrian –batik bat, familiei kuotak kobratuz–, gutxitzen doa ikasle kalteberen proportzioa.<sup>30</sup> **Espainiaren kasuan, adibidez, ikastetxeetako finantzaketa pribatua igotzen den portzentajezko 10 puntu bakoitzeko (hilean 50 €, gutxi gorabehera), sozioekonomikoki gaitasun gutxiko ikasleen matrikulazioa portzentajezko 1,3 puntu jaisten da ikastetxe horietan, eta atzerritar jatorriko ikasleen matrikulazioa portzentajezko 0,9 jaisten da (18. grafikoa).**


Emaitza horiek ikastetxea askatasunez hautatzeko garrantzia finantzaketa egokiaren, benetako doakotasunaren eta onarpen-irizpide ekitatiboen parez pare egon behar duela azpimarratzen zuten aurreko ikerketen ildo beretik doaz.<sup>31</sup>

30 ELGE, 2023.

31 Alves et al., 2015; Epple, Romano eta Urquiola, 2015; Baum et al., 2014, Neilson, 2013.

Txileren<sup>32</sup> edo Kataluniaren<sup>33</sup> kasuek, zehazkiago esateko, ondo erakusten dute finantzaketa publiko handiago baten bitartez itunpeko eskoletan kuotak kentzeak –batik bat, sozioekonomikoki familia kalteberentzat– murriztu egin dezakeela eskola publikoen eta itunpekoen arteko profil sozioekonomikoaren arrakala.

18. grafikoa. **Ikastetxeen finantzaketa publikoa eta ikasle kalteberak Espainian.**



Oharra: tonu ilunetan azaltzen dira estatistikoki esanguratsuak diren erregresio-koefizienteak. Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuekin.

### **Itunpeko eskolaren finantzaketa publikoak ez dakar beti arautze handiagorik**

Finantzaketa publiko handitzeak itunpeko eskolen autonomiaren kaltetan izaten denaren uste orokortua dago. Ondorioz, itunpeko eskolen sektore batek mesfidantza azaldu dezake jasotzen duten finantzaketa publikoaren balizko igoera baten aurrean. Eskola pribatu independenteekin alderatzen baditugu, jakina, itunpeko eskolek ikuskapen sakonagoa dute hezkuntzako agintaritzaren eta ikuskatzaileen aldetik, oro har, eta askatasun gutxiago dute beren baliabideak kudeatzeko orduan. Hezkuntza-sistema batzuetan, halere, mota horretako eskolek autonomia-maila handia dute, eta, edozelan ere, eskola publikoen baino autonomia handiagoa izatea da normalena.


Suedian, adibidez, itunpeko eskolak finantza-autonomia oso handia du, eskola publikoak duen baino askoz handiagoa, nahiz eta administrazio publikoak finantzaturik egon ia oso-osorik (16. eta 19.a grafikoa). Espainiaren kasua baino oraindik interesgarriagoak izan daitezke, agian, Erresuma Batuko eta Herbeheretako kasuak. Horien hezkuntza-sistemetan, administrazio publikoek behar bezala finantzatzen dute itunpeko eskola (16. grafikoa), eta eskolek finantza- eta curriculum-autonomia handia dute, baina ez, zehazki, horien arautzea oso bestelakoa izateagatik eskola publikoaren aldean, eskola guztiek, publikoek zein itunpekoek, eskola-autonomia handia dutelako baizik (19. grafikoa).

32 Elacqua, 2012.


33 Claramunt, 2024.

**Espainia, aitzitik, itunpeko eskolan duen autonomia urriagatik eta eskola publikoarekin alderatuta autonomia arloan duen alde eskasagatik nabarmentzen da.** Hau da, ez eskola publikoak, ez itunpekoak, ez dute autonomia handirik beren finantza eta curriculum kontuak kudeatzeko, behintzat, beste hezkuntza-sistema batzuekin alderatzen baditugu. Horren haritik, baliteke hezkuntza-sistema osoan eskolaren autonomia handitzea izatea Espainian estrategia politikorik bideragarriena itunpeko eskola egoki finantzatzeko eta, aldi berean, horien eskola-autonomia indartzeko. Eskola publikoak ere estrategia horretan sartuko lirateke. Ez da ahaztu behar sistema arrakastatsuenen ezaugarrietako bat dela beren eskolek duten autonomia handia.<sup>34</sup>

19. grafikoa. **Itunpeko ikastetxeen eskola-autonomia eta eskola publikoarekiko arrak.**



**Itunpeko eskolak eskola publikoak baino autonomia gutxiago du.**



Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuekin.

## 7. Hautatzeko askatasuna bermatzen: funts publikoekin mantentzen diren eskola guztietarako sarbide-irizpide ekitatiboak

Onarpen-prozesuetan ematen den selektibitate akademikoa da eskola-segregazioaren atzean dagoen arrazoi nagusietako bat, bai egoera sozioekonomikoki oneko ikasleen kasuan, bai egoera sozioekonomikoki txarreko ikasleenean.<sup>35</sup> Hori dela eta, ekitatearen ikuspegitik begiratuta, **pozik egotekoa da Espainiako ikastetxeak ez izatea bereziki selektiboak** derrigorrezko hezkuntzaren etapetan **ikasleak onartzerakoan**. Inklusibitate akademiko hori bereziki azpimarragarria da Bigarren Hezkuntzan, maila horretan beste hezkuntza-sistema batzuek onarpen-irizpide selektiboagoak sartzen hasten direlako. Austria, Alemania, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Herbehereak edo Suitza bezalako hezkuntza-sistemetan, ikasleak curriculum-programa ezberdinetan banatzen dituzte oso garaiz (14 urte baino lehen).<sup>36</sup> Espainian, aldiz, ikasleek 15 urtetik aurrera bakarrik aukera dezakete curriculum-ibilbide desberdin bat (LHko prestakuntza-zikloen Oinarrizko Gradua).

Gainera, Hungariako edo Herbeheretako hezkuntza-sistemak ez bezala, **Espainiako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ia ez da kontuan hartzen ikasleen espediente akademikoa onarpen-prozesuetan** (20. grafikoa). Egitez, funts publikoekin mantentzen diren ikastetxeetan, Batxilergotik aurrera hasten dira kontuan hartzen historial akademikoa, eta derrigorrezkotasun etaparen osteko etapa horretan sartzen dira 15 urtetik aurrerako ikasleen bi herenak, gutxi gorabehera.<sup>37</sup> Gainera, horra matrikulatzeko onarpenetan apenas den gehiegizko eskaririk. Hasiera batean, Espainian ikastetxe pribatu independente batzuei zor zaie derrigorrezko etapetan dagoen selektibitate akademiko txikia. Onarpen-prozesuetako inklusibitate horixe da, ziurrenik, Espainian Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan segregazio-eskola neurritsua izatearen arrazoietakoa bat, Lehen Hezkuntzan nahiko handia den arren horren aldean.<sup>38</sup>

Kontua ez da bakarrik Espainiako hezkuntza-sistema akademikoki inklusiboa dela bere onarpen-prozesuetan. **Ez da, halaber, ikastetxe publikoen eta itunpekoen artean alde nabarmenik hautematen ikastetxeek kontuan hartzen dituzten onarpen-irizpideei dagokionez** (1. taula). Egitez, autonomia-erkidego batzuek ikastetxeek hauta dezaketen irizpide osagarria bazter uzten badugu, onarpen-irizpide bertsuak leudeke eskola publikoetan zein itunpekoetan. Bestelako kontua da australiar, daniar, eslovakiar, estoniar, frantziar, hungariar eta turkiar hezkuntza-sistemetan gertatzen dena. Horietan, itunpeko eskolak eskola publikoak baino garrantzi handiagoa ematen dio potentzialki baztertzailak diren irizpideei (espediente akademikoa, diziplina-espedienteak, jatorriko ikastetxearen gomendioa, gurasoek ikastetxearen pedagogiarekiko edo sinesmenarekiko duten atxikipena), eta garrantzi gutxiago ematen dio irizpide neutroagoi (bizilekua). Espainian itunpeko ikastetxeek publikoek baino sarriago baloratzen duten irizpide potentzialki baztertzailaren (ikuspegi pedagogikoarekiko edo sinesmenarekiko atxikimendua) barruan bertan ere, arrakala aztertutako hezkuntza-sistema guztien artean ematen den txikienetakoa da (21. grafikoa). Txile, Hego Korea, Herbehereak eta Erresuma Batuenak dira itunpeko eskolen eta eskola publikoen artean antzeko onarpen-irizpideak dituzten beste hezkuntza-sistema batzuk.

35 ELGE, 2023


36 ELGE, 2023

37 Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioa, 2023.

38 Cobreros eta Gortazar, 2023; Ferrer eta Gortazar, 2021.



20. grafikoa. **Espediente akademikoa onarpen-prozesuetan beti kontuan hartzen den ikastetxeetan matrikulatutako 15 urteko ikasleen portzentajea.**




Iturria: egileak egina 2022ko PISAren datuekin.

Taula 1. **Ikastetxe publikoek eta itunpekoak kontuan hartzen dituzten onarpen-irizpideen arteko aldeak.**

	Espediente akademikoa	Diziplina-espeditentea	Jatorriko ikastetxearen gomendioa	Gurasoek ikastetxearen ikuspegi pedagogikoarekiko edo sinemenarekiko duten atxikipena	Programa zehatz baten lehentasuna edo premia	Ikaslearen senidea matrikulatuta dago edo antzinako ikaslea da	Bizilekua
Australia		●	●	●		●	●
Belgika				●			
Txile					●		
Kolonbia							
Hego Korea						●	
Danimarka	●		●	●	●	●	●
Eslovakia	●	●		●	●		●
<b>Espainia</b>	●			●			
Estonia	●	●		●	●	●	●
Frantzia	●	●	●	●	●	●	●
Hungaria		●		●	●	●	
Zeelanda Berria				●		●	
Herbehereak							
Portugal					●		●
Erresuma Batua							
Txekiar Errepublika	●						●
Suedia		—	●			●	●
Turkia			●	●		●	

Nota: Ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen ehunekoan oinarritutako emaitzak, goian aipatutako irizpideak batzuetan edo beti kontuan hartuta.  
 ● Itunpeko eskolak publikoak baino askoz sarriago hartzen du kontuan irizpide hori / ● Itunpeko eskolak publikoak baino sarriago hartzen du kontuan irizpide hori.  
 ● Eskolak publikoak itunpekoak baino sarriago hartzen du kontuan irizpide hori / ● Eskolak publikoak itunpekoak baino askoz sarriago hartzen du kontuan irizpide hori.  
 - Daturik gabe / Ez dago alde handirik itunpeko eskolen eta eskola publikoen artean.

21 grafikoa. **Onarpen-prozesuetan gurasoek ikastetxearen pedagogiarekiko edo sinesmenarekiko duten atxikimenduaren garrantzia.**



Ohrra: tonu ilunetan azaltzen dira estatistikoki esanguratsuak diren aldeak.  
Iturria: egileak egin 2022ko PISAren datuekin.

**Ikastetxe publikoek sarriago hartzen duten kontutan gurasoek ikastetxearen ikuspegi pedagogikoarekiko edo sinesmenarekiko duten atxikipena.**

**Itunpeko ikastetxeek sarriago hartzen duten kontutan gurasoek ikastetxearen ikuspegi pedagogikoarekiko edo sinesmenarekiko duten atxikipena.**

## **Espainiako hezkuntza-sisteman, batik bat, autonomia-erkidegoetako batzuetan, indarrean jarraitzen dute ikasle kalteberak potentzialki baztertzen dituzten onarpen-irizpideak**

Hala eta guzti, espainiar hezkuntza-sisteman onarpen-prozesu guztiak ez dira maila berean inklusiboak. Onarpen-prozesuak hiru taldetan sailkatzen baditugu (kalteberatasun handieneko ikasleen mesedetan, teorikoki neutroak, eta kalteberatasun gutxieneko ikasleen mesedetan) potentzialki mesedetua den ikasleriaren profila kontuan hartuta, nolabaiteko potentzial baztertzailea duten irizpide batzuk aurkituko ditugu, eta autonomia-erkidego batzuetan, gainera, indarrean jarraitzen dute ikastetxeei beren ikasleak aukeratzeko nolabaiteko gaitasuna eskaintzen dieten irizpideak (2. taula).

Onarpen-prozesuetan, ikasle kalteberenen mesedetan izan daitezkeen (“diskriminazio positiboaren” barruan egongo lirateke) irizpideen artean, besteak beste, etxeko diru-sarrerak, hezkuntza-laguntzak, premia bereziak, guraso bakarrek, familiak, familia ugariak, ikasleen eta horien senideen gutxiagotasuna, genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea, gaixotasun kronikoak edo familia-harrerako egoeran egotea bezalako aldagaiak aurki ditzakegu. Autonomia-erkidego guztiek irizpide horietako gehienak kontuan hartzen dituzte beren onarpen-prozesuetan, zorionez. Irizpide horietako batzuk ikasle gutxi batzuei bakarrik eragiten diete; hori izan daiteke, hezkuntza-premia bereziak dituztenen, gutxieneko errenta edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen duten familien edo familia-harreraren den ikasleen kasua. Beste irizpide batzuk, berriz, ikasle gehiagori eragiten diete, baina proportziozko neurri batzuen barruan, beti. Euskadiren kasuan, adibidez, etxeko diru-sarrerak punturen bat duten onarpen-prozesuetan, errenta aitoren zerga-oinarria ezin da izan 14.000 € baino gehiagokoa, eta jende gehienak gaitzen du atalase hori. Aipatu beharra dago irizpide horiek, zenbait kasutan, plaza erreserbatzeko eskubidea daramatela berekin, plaza horiek eskaeren baremazioaren

aurretik esleitzen direlarik. Hezkuntza-laguntza premia bereziek, dela hezkuntza-premia bereziengatik, dela kalteberatasunarekin lotutako familia-egoerengatik, plaza erreserbatzeko eskubidea eman ohi dute, esate baterako.

**2 taula. Derrigorrezko hezkuntzako etapetako ohiko prozesuan diren onarpen-irizpideak, ekitatearen eta helmenaren arabera.**

Onarpen-irizpideak	<b>Ekitatea:</b> onuradun izan daitekeen ikasle-mota			
	Kalteberatasun handiako ikasleak	Neutroak (*)	Kalteberatasun txikiagoko ikasleak	
<b>Alcance:</b> número de alumnado concernido	Elevado	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Familia ugaria eta anai-arreba kopurua.</li> <li>» Hezkuntza-laguntzako premia bereziak egoera sozial, ekonomiko edo kulturalengatik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Aurreko hezkuntza etapako ikastetxeetatik datozen ikasleek lehentasuna dute.</li> <li>» Anai-arrebak ikastetxe bereko doako etapa batean matrikulatuta daude.</li> <li>» Familiaren bizilekutik edo lantokitik ikastetxera den hurbiltasuna.</li> <li>» Ikastetxea lehen aukera gisa hautatu izan da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Puntuazio gehigarria ikastetxeak aukeratutako irizpide osagarrietan oinarrituta.</li> <li>» Haur Hezkuntzako lehen zikloan matrikulatuta dago baimendutako ikastetxe batean.</li> <li>» Gurasoen soldatapeko jarduera.</li> </ul>
	Moderado	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Familia-unitatearen urteko per capita errentak.</li> <li>» Hezkuntza-premia bereziak.</li> <li>» Senideen lehen graduko desgaitasuna.</li> <li>» Guraso bakarreko familia.</li> <li>» Bizilekua hezkuntza etapa batean ikastetxerik ez duen udalerrri batean da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Familiaren behartutako mugikortasuna (kalteberatasunarekin loturarik ez dutenak).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Ikaslea, gurasoak edo anai-arrebak antzinako ikasleak dira.</li> <li>» Ikaslea, gurasoak edo anai-arrebak antzinako ikasleak dira.</li> <li>» Atzerriko hizkuntzaren maila egiaztatua atal elebidunetarako.</li> </ul>
	Reducido	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Ikaslearen gaixotasun kronikoa.</li> <li>» Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta (GGE) edo Bizitzeko Gutxieneko Errenta (BGE) jasotzen du.</li> <li>» Genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktima.</li> <li>» Kalteberatasunik gabeko familien eskaera bateratua konplexutasun handiko ikastetxeetan.</li> <li>» Erditze anizkoitzean jaotako ikasleak.</li> <li>» Familia-harreraren diren ikasleak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Musikako eta dantzako irakaskuntza arautuan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzan aritzea aldi berean, eta goi-mailako kirolariak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>» Progenitores o tutores legales que trabajen en el centro solicitado.</li> </ul>

Iturria: egileek egin onarpen-prozesuei buruzko erkidegoetako legeriaren informazioarekin.

(\*) **Irizpide hauek neutroak dira teorikoki. Praktikan, baina, irizpide horietako batzuk profil sozioekonomiko jakin bateko familien mesedetan izan daitezke.** Lehen aukera gisa hautatutako ikastetxei ematen zaien lehentasuna, adibidez, familia kalteberenak lehen aukera gisa nahiago duten ikastetxea hautatu ordez eurentzat aukera handienekoa dela uste duten ikastetxea hautatzera bultzatzen ditzake. (\*\*) Inpaktua eta ekitatea ikastetxeek beren irizpideak hautatzeko duten autonomiaren eta askatasun horretaz egiten duten erabileraren mende egongo da. Hala ere, ikastetxeek hezkuntza kontseilaritzek hautatu izan dituzten baino inklusibotasun gutxiagoko irizpideak hautatuko dituztela espero da.

Ekitatearen aldetik hasiera batean neutroak diren irizpideen artean, berriz, ikasle askori eragiten dieten batzuk aurki ditzakegu, atxikitako ikastetxeetatik (matrikulatzea eskatzen den ikastetxearekin lotura duten ikastetxeetako hezkuntza-etapetakoak) datozen ikasleei sarbidean lehentasuna ematea, ikastetxearekiko hurbiltasuna eta ikastetxean (edo atxikitako ikastetxeetan) matrikulatuta den anai-arrebak izatea, esate baterako. Irizpide horiek neutrotzat jotzen ditugu, berez ez direlako talde jakin baten kalterako edo mesederako, nahiz eta aurreko atxikitako ikastetxean matrikulatzean, ikastetxe berean anai-arrebak matrikulatzerakoan eta biztanleriaren bizitokiaren araberako banaketan ekitate-eza egon daitekeen. Beste irizpide neutro batzuek, derrigorrezko mugikortasuna edo goi-mailako kirolaria izatea, kasu, ez dute horrenbesteko garrantzirik, ikasle kopuru mugatu bati bakarrik eragiten diotelako. Aipamen berezia merezi du aurren-aurrena hautatutako ikastetxearen irizpideak. Calsamiglia y Güell-ek erakutsi dutenez,<sup>39</sup> pizgarriak eragiten ditu lehen aukera gisa arrakasta izateko aukera gehien duen ikastetxea, eta ez, ezinbestean, nahien den ikastetxea aukeratzeko. Baliabide gehieneko familiek aukera gehiago dituztenez joan-etorrietarako, hezkuntza pribatua ordaintzeko lehenesten duten aukera ez bada onartua, euren lehen aukera hautatzeko orduan gehiago arriskatuko dutela aurreikus daiteke.

Azkenik, bada onarpen-prozesuetan kalteberatasun gutxieneko ikasleen mesedetan edo kaltetan izan daitekeen beste irizpide sorta bat. Lehenik eta behin, **bere gurasoek edo legezko tutoreek ikastetxean lan egiten duten ikasleei** puntuak ematea, nagusiki, kalteberatasun gutxieneko ikasleen mesedetan izan ohi da, gehienek lanbide arteko gutxieneko soldataren, batez besteko soldataren eta euren lurraldeetako batez besteko soldataren gainetik dauden soldatak jaso ohi dituztelako. Edonola ere, eztabaida handirik sortuko ez duen irizpide bat da, ikasle kopuru mugatu bati bakarrik eragiten diolako eta, seguruenik, ikastetxeko ikasle guztiak direlako ikastetxeko irakasleek eta bestelako profesional batzuk ere euren lan- eta familia-bizitza uztartu ahal izatearen onuradunak.

Atzerriko hizkuntzan, normalean ingelesean, **gutxieneko maila bat egiaztatze beharra** da kalteberatasun gutxieneko ikasleen mesedetan izan daiteken irizpide bat ikastetxe elebidunetan sartu ahal izateko. Madrileko Erkidegoan, esate batera, ikastetxe publiko elebidun batetik ez datozen ikasle guztiak B1 maila egiaztatu beharra dute DBHko lehen eta bigarren mailetarako, eta B2 maila DBHko hirugarren eta laugarren mailetan Bigarren Hezkuntzako adar elebidunera sartu ahal izateko. Bigarren hizkuntza bat eskuratzea edo horren ondoriozko egiaztapena dezenteko kostua duten prozesuak direnez, irizpide horrek atea ixten die kalteberatasun handieneko ikasleei. Aurrekoari gehitzen badiogu ikastetxe elebidunek, batez ere adar elebidunek, egoera sozioekonomiko erosoak duten familien interesa erakartzeko duten ahalmena, ez gaitu harritu behar ikertzaileek adar elebidunak eskola-segregazioaren iturri gisa jo izatea Madrileko Erkidegoan.<sup>40</sup> Nolanahi ere, irizpide horren helmena hezkuntza elebidunak autonomia-erkidegoetan duen garrantziaren mende egongo da.

Autonomia-erkidego batzuek ikaslea bera, horren gurasoak edo anai-arrebak ikastetxeko **antzinako ikasleak** izatearen baldintza ezarri dute irizpide modura. Batzuek ikastetxe guztietara zabaldu dute irizpide hori, Madrileko Erkidegoak egin duen bezala, eta beste batzuek irizpide osagarri gisa jarri dute beren ikastetxeetan. Azken hori hautatu dute Gaztela eta Leónnek, Ceutak eta Melillak eta Murtziako Erregioak. Arrazoizkoa da pentsatzea irizpide hori erabakigarriagoa izango dela errendimendu akademiko ona eta

39 Calsamiglia eta Güell, 2013.

40 Gortazar eta Taberner, 2020; Almazán, Martínez Garrido eta Murillo, 2021; Mediavilla et al., 2018.

sozioekonomikoki egoera onean diren ikasleak dituen ikastetxeetan sartzeko, eta, edozein kasutan, bizitokitik mugikortasuna eskatzen zaien eta atzerritar jatorriko familien hala nola ikasketei adin goiztiarrean utzi zioten gurasoen kaltetan da.

Beste onarpen-irizpide ez-ohikoago bat da familiako norbait ikastetxeari lotutako **kongregazio, elkarte, fundazio edo kooperatiba bateko kide izatea**. Euskadi da irizpide orokor gisa ezartzen duen autonomia-erkidego bakarra (kooperatiba-bazkide izatea, hain zuzen), eta esan dezakegu lurralde horretan kooperatibek ehun ekonomikoan eta sozialean eta ikastolen kudeaketan duten garrantziagatik dela. Madrileko eta Gaztela eta Leónko erkidegoetako ikastetxe batzuek ere jasotzen duten irizpide hori, irizpide osagarria hautatzeko duten eskola-autonomiaren barruan.

Andaluzian, puntuazio gehigarri bat esleitzen da gurasoek **ordainpeko jardueraren bat badute edo ikaslea baimendutako ikastetxeren bateko Haur Hezkuntzako lehen zikloan matrikulatuta bada**. Kontuan hartzen badugu familia kalteberak lan arloan jarduera gutxiago egin ohi dutela eta Haur Hezkuntzako lehen ziklorako sarbidea ez dela unibertsala, ezta ere beti doakoa, familia kalteberenak baztertzeko potentzialitatea duten irizpideak dira, gure ustez. Gainera, esan dezakegu lana eta familia uztartzeko premia ez dela horrenbestekoa derrigorrezko etapetan Haur Hezkuntzako lehen etaparekin alderatuta, non ordainpeko jardueraren irizpidea ohikoago baita.

Irizpide guztien artetik, polemikoena autonomia-erkidegoen arabera ikastetxeei onarpen-prozesuetan, gutxi gorabehera diskrezionaliki, puntuazio gehigarria emateko aukera eskaintzen diena da, beharbada. Eskari handia dagoen ikastetxeetan, irizpide osagarriak ematen duen **puntuazio gehigarria** erabakigarria izan daiteke onarpen-prozesuetan.

Kanarietan, esaterako, ikastetxearen diskrezionalitatea araudian dagoeneko jasotzen diren irizpide orokorreki garrantzi handiago ematera mugatzen da (ikus I. Eranskina). Beste autonomia-erkidego batzuetan, berriz, ikastetxeek Kontseilaritzak zehaztutako zerrenda batetik hautatzen dute irizpide osagarri bat. Balear uharteetan, adibidez, ikastetxeek lau irizpide zehatzen artetik aukeratzen dute, orokorrean neutroak edo familia kalteberenen mesederako direnak. Gaztela eta Leónen eta Murtziako Erregioan, ikastetxeek irizpidezerranda zabalago batean hautatzeko aukera dute, horietako zenbaitzuk ahalmen baztertzalea dutelarik, adibidez antzinako ikasle baten senidea izatea bi erkidegoetan, kongregazio erlijioso bateko kide baten senidea izatea Gaztela eta Leónen kasuan, edo aurretik hezkuntza-etapa batean ikasten aritua izatea Murtziako Erregioan (funts publikorik gabekoen etapak ere barne hartzen dituela aintzat hartuta).

Euskadin, Galizian, Madrileko Erkidegoan eta Valentziako Erkidegoan, aldiz, ikastetxeek diskrezionalitate zabala dute beren irizpide osagarria hautatzeko. Euskadin, irizpideak publikoak eta objektiboak izan behar dira, eta ez dute diskriminaziorik eragingo jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo bestelako edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialarengatik. Ikastetxeek hautatzen dituzten irizpide osagarriek antzeko betekizunak bete behar dituzte Valentziako Erkidegoan (azterketa xehatu baterako, ikus 4. laukia). Galizian irizpide osagarriaren hautaketa arrazoitu egin behar da, eta irizpidea objektiboa, egiaztagarria eta publikoa izan behar du. Madrileko Erkidegoan, irizpide osagarriak hiru puntu ere eman diezazkioke eskatzaileari, eta horientzako eskakizun bakarra da Eskola Kontseiluak ezarritako irizpideak objektiboak izan behar direla eta jendearen eskura egon behar direla ikastetxe bakoitzaren web-orrian eskaerentzako onarpen-epea hasi aurretik. Era horretan, Madrileko Erkidegoko ikastetxeek askotariko irizpide osagarriak hautatzen dituzte, eta horietako zenbaitzuk baztertzeko ahalmen esanguratsua gordetzen dute (azterketa xehatu baterako, ikus 5. laukia).

Madrileko ikastetxeek maizenik hautatzen dituzten irizpide osagarrien artean, aipatzekoak dira ikasle eskatzailea Haur Hezkuntzako azken ikasturtean edo anai-arrebaren bat ikastetxe berean hezkuntza-etapa pribatu batean (ez doakoan) matrikulatuta egoteagatik ematen duten puntuazio gehigarria. Ikastetxe publikoetan irizpide horiek ez dute garrantzirik, doakoak direlako bere etapa guztietan, baina garrantzia dute etapa pribatuak (Haur Hezkuntza eta Batxilergoa) eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeetan. Irizpide horiek euren seme-alabak itunpeko eskoletan matrikulatzeko asmoa duten familia behardunak kaltetzen dituzte, larri kaltetu ere, normalean ez dutelako funts publikoekin mantentzen ez diren etapetan kuotak ordaintzeko baliabide ekonomikorik. Kuota horiek, gainera, merkatuko prezioaren gainetik egon ohi dira.

## 4./ **Valentziako Erkidegoaren onarpen-prozesu berria**

2024ko apirilaren 23an jarri zen indarrean 48/2024 Dekretua, Valentziako Erkidegoan funts publikoekin mantentzen diren ikastetxeen onarpen-prozesua aldatzen duena. Oro har, onarpen-prozesuak ez du aldaketa handirik eta indarrean jarraitzen dute onarpen-irizpide inklusiboak, adibidez familiako edo bizilekuko harreraren diren ikasleek edo etxegabetzeagatik, genero-indarkeriagatik, terrorismoarengatik edo bestelako gizarte-bazterketako egoera egiaztatu larriengatik lehentasuna izatea. Baremazio-prozesuan, halaber, kontuan hartzen dira alderdi hauek: etxeko diru-sarrerak, inklusiorako valentziar errenta jasotzea, erditze anizkoitza, familia ugaria, guraso bakarreko familia, edo eskatzailearen edo horren senideen desgaitasuna. Aldaketei dagokionez, esanguratsuenak barruti bakarra sortzea eta ikastetxeek askatasunez aukeratzeko irizpide osagarria (edo berariazko inguruabarra) dira. Azter ditzagun, xehe-xehe, bi aldaketa horiek hezkuntza-ekitatearen ikuspegitik.

Udalerrri osoa eragin-eremutzat hartuz, hots, bizilekuko barruti bakarraren printzipioa, aurreko araudian jasotzen zen ikastetxeen eragin-eremua ordeztzen da. Horrek zera esan nahi du, lehen eskatzaileek puntuaziorik handiena (10 puntu) jasotzen bazuten hurbiltasunagatik, bere etxea ikastetxearen eragin-eremu barruan zegoelako, egungo araudiarekin ikasleek hurbiltasunagatik puntuazio handiena lortzen dutela bere udalerrian edo, salbuespenezko kasu batzuetan, udalerrria baino eragin-eremu txikiagoetan kokatzen den edozein ikastetxetan. Valentziako hiriaren kasuan, esaterako, eragin-eremuak hiriaren 19 barrutiak edo horien uztarketa bat izango direla aurreikus daiteke, udalerrri osoa izan beharrean.

Tamaina txikiagoko eragin-eremuek eskola-segregazioa murriztu egiten dutela uste bada ere, kasu honetan, behintzat, ez du eragin oso nabarmenik izango familien hautaketan, gure ustez. Lehenik eta behin, aurreko araudiko eragin-eremuek, araudi berrian espero diren baino tamaina txikiagokoak, batez beste jota, familiei aukeratzeko nolabaiteko gaitasuna eskaintzen zietelako. Aurreko araudian jasotzen zen moduan, “edozein bizileku hainbat ikastetxeren eragin-eremuan barruan egongo da eskaintzan pluraltasuna areagotzeko asmoz, betiere hori bideragarria denean”. Hau da, aurreko araudiak ez zion ikastetxe jakin bat esleitzen etxe bakoitzari, Frantzia eta beste hezkuntza-sistema batzuetan gertatzen den moduan. Aitzitik, edozein



ikastetxeren artean aukera zezaketen, beren etxebizitza haren eragin-eremuaren barruan aurkitzen bazen, betiere.<sup>41</sup> Beste alde batetik, araudi berriak handitu egingo du udalerrri batzuen eragin-eremuaren tamaina, baina muga batzuekin. Izan ere, lehen aipatu dugun moduan, aurreikustekoa da, eta nahi izatekoa, populazio handieneko edo alkate-auzoak dituzten udalerrietan (Valentzia, Alacant, Elx, Castelló) eragin-eremuak udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko entitateak izango direla. Araudiak dioen moduan, “hezkuntza arloan eskumena duten lurralde-zuzendaritzek zehaztuko dituzte beren ezaugarri bereziengatik zein udalerritan ezarri behar den eragin-eremu bat baino gehiago. Era berean, ikastetxeren bat duten auzo-elkarteek eta toki-erakunde txikiek eragin-eremu bat eratuko dute distantziak edo komunikaziorako diren zailtasunek hala gomendatzen dutenean”. Konklusio modura, aurreko araudiak ez zuen gehiegi mugatzen hautatzeko askatasuna, eta egungo araudiak ez du mugagabeki zabaltzen. Gakoa, hezkuntza-ekitatearen eta ingurumena zaintzearen ikuspegitik, populazio handieneko udalerrietan eragin-eremu handiegirik ez egotea zaintzean datza.

Araudi berriaren bigarren aldaketarekin, ikastetxeei eurek aukeratzen duten inguruabar berezi batengatik puntu gehigarri bat esleitzeko aukera ematen dien irizpide osagarria sartzen da, Madrileko Erkidegoan eta Galizian egiten den moduan. Irizpide hori “irizpide objektibo batzuekin ezarriko da, ez da kontraesanean egongo dekretu honen 3. artikuluan ezartzen denarekin, eta ez du ezein motako diskriminaziorik eragingo”. Madrileko Erkidegoko ikastetxeek hautatu izan dituzten irizpideak aztertzean, garbi geratzen da ez dutela Hezkuntza Kontseilaritzak hautatutakoek bezainbesteko inklusibotasunik. Valentziako Erkidegoaren kasuan ere ez dugu bestelakorik espero, baina kasu horretan, aipatu beharra dago puntu gehigarri bat esleitzen dela Madrileko Erkidegoan esleitzen diren hiru punturen ordean, eta Valentziako Erkidegoaren araudiak mugak ezartzen dituela artikulua berean diskriminazio ezari buruz. Hezkuntzako administrazioak, bereziki hezkuntza-ikuskapenak eta Justiziak, hala badagokio, bermatzen baldin badute inguruabar bereziek ez dakartela “ezein motako diskriminaziorik”, baliteke aldaketa horrek handitu egitea ikastetxeen autonomia, familia kalteberenek askatasunez hautatzeko eskubidearen kalterik gabe. ●

---

41 Argitu beharra dago ikastetxe baterako esleipen automatikoak lagundu egiten duela ikastetxe baten gizarte-eraketa auzoaren gizarte-eraketaren adierazpen leiala izaten, baina kontrako ondorioa eragin dezake epe luzera, familiek euren seme-alabentzat nahi duten eskolaren arabera erabakitzen badute non bizi.

## **5./ Madrileko Erkidegoaren irizpide osagarriaren ahalmen baztertzailea**

Madrileko Erkidegoan ikastetxeek aukeratutako irizpide osagarrien azterketa partzialean, agerikoa da irizpide horiek, batez beste, familia kalteberenentzat ez direla Hezkuntza Kontseilaritzak ezarritakoak bezain aldeko. Irizpide horien artean, badira neutroagoak (barruti, auzo edo posta-kode jakin baten bizi edo lan egitea; ate irekiko jardunaldian parte hartzea; aurreko urtean plazarik gabe geratu zen ikaslea izatea; ikastetxea lehen aukera gisa hautatzea) eta logika inklusiboago bat dutenak (gizarte-zerbitzuek agiri bidez egiaztatutako kalteberatasun-egoerak), baina baztertzeko gaitasuna duten irizpideak aurkitzen ditugu gehienetan, jarraian azaltzen diren benetako adibide hauetakoak bezala:

### ***Familiak ikastetxearekin duen loturari buruzko irizpideak***

- » Gurasoak edo senideak ikastetxearen antzinako ikasleak dira
- » Ikastetxearekin zuzeneko harremana du edo izan du
- » Ikastetxearen ohiko kolaboratzaile baten seme-alaba edo biloba da
- » Ikasleak laugarren mailako senideak ditu (lehengusuak/lehengusinak)

### ***Ikastetxea kudeatzen duen kolektiboko kide edo lotura izatea***

- » Senidea ikastetxea kudeatzen duen erlijio-kongregazioko kide da
- » Ikastetxea kudeatzen duen kooperatiba-bazkide batek aurkeztua da
- » Ikastetxea kudeatzen duen erakundearen negozioetako edo lotutako enpresetako langileen seme-alaba da

### ***Doakoak ez diren etapetako edo prestakuntzetako matrikulazioarekin lotutako irizpideak***

- » Ikaslea ikastetxeko haur-eskolako lehen zikloan matrikulatuta dago orain
- » Eskatzailea haur-eskola zehatz batean matrikulatuta dago
- » Anai-arreba ikastetxe bereko etapa pribatu batean (itundu gabekoan) matrikulatuta dago
- » Eskatzailea ikastetxea kudeatzen duen erakundeak kudeatutako kirol-klubean edo musika-eskolan matrikulatuta dago

### ***Irizpide erlijiosoak***

- » Gurasoek ikastetxe eta unibertsitate katoliko batean ikasi zuten
- » Ikaslea beste ikastetxe katoliko batetik dator
- » Ikaslea barrutiko pentsaera katolikoko haur-eskola edo ikastetxe batetik dator

## **Gurasoen lanbide-profilarekin lotutako irizpideak**

- » Gurasoek hezkuntza arautuaren sektorean egiten dute lan

## **Beste senideen bizitokia**

- » Aitona-amonen edo osaba-izeben bizilekua ikastetxearen barrutian edo inguruko ●

## **6./ La financiación de los centros concertados en Catalunya, la matriculación equilibrada del alumnado vulnerable y la “mochila escolar”**

Eskolako segregazioaren kontra borrokatzeko eta ikasle kalteberak eskola publikoetan eta itunpekoetan modu orekatuan banatzea lortzeko asmoz, Kataluniako Hezkuntza Sailak “eskola-motxilak” (motxilles escolars) deiturikoak jarri zituen martxan 2022-23 ikasturtean. “Motxila” horiek administrazio publikoek jartzen dituzten funts gehigarri batzuk dira, eta mota horretako ikasleak hartzen dituzten ikastetxeek jasotzen dituzte, ikasle kalteberak eskolatuta diren denbora osoan. Zenbatekoek datorren ikasturterako esanguratsuki gora egingo dutela aurreikusten bada ere, eskola publikoek 385 € jaso zituzten 2023-24 ikasturte akademikoan matrikulatutako ikasle kaltebera bakoitzeko (NESE B gisa ezagutzen dira, arazoisozioekonomikoengatik hezkuntza-premiabereziak dituzten ikasleak, alegia), hein batean seigarren ikastordua bezalako zerbitzu gehigarriak estaltzeko. Baliabide gehigarri horiek “motxila” jasotzen duten ikasleen hezkuntza-zerbitzuen doakotasuna bermatzera zuzendu behar dira. Hau da, materiala eta eskolako zerbitzuak ordaintzeko, adibidez eskolako materiala, eskolako uniformeak edo eskolaren irteerak. Kataluniako Hezkuntza Sailaren datuen arabera, lau ikasle bakoitzeko finantzaketa gehigarria ekarri zieten beren ikastetxeei “eskola-motxila” bidez. Neurri horiek ondo funtzionatu zuten eta eskola-segregazioa neurri batean murriztu egin zuten horrelako eta Eskola-segregazioaren Itunarekin lotutako beste mota batzuetako neurriekin,<sup>42</sup> baina 2023-24 ikasturtean itunpeko ikastetxe batzuk kexa adierazi zuten laguntzak berandu iritsi zirelako eta ez zirelako aski ikasle kalteberenen behar guztiak estaltzeko. Atzerapen horrek, izan ere, handitu egiten ditu ikastetxeen kostu finantzarioak.<sup>43</sup> Save the Children, uste dugu itunpeko sare osoan eta ikasle guztientzat doakotasuna bermatzea dela politika onena, familien profil sozioekonomikoa edozein dela ere. Baina baliabideak mugatuta dauden testuinguru batean, eskola-motxilen politika da seguruenik alternatibarik onenetako bat.

Eskola-motxilak Erresuma Batuko pupil premium delakoaren antzera funtzionatzen du. Horren arabera, funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztiek finantzaketa gehigarri bat jasotzen dute eskolatzen duten ikasle kalteberen kopurua aintzat hartuta. Programarentzat, ikasle kalteberak dira eskola-jantokia doan duten edo izan duten edo gobernu-erakundeetan

42 Claramunt, 2024.

43 *El País*, 2024.

hartutako ikasleak. Ikastetxeek ez dute diru hori zehazki zertan inbertitu beharrik ikasle kalteberetan –horixe da, ziurrenik, programaren gauza interesgarriena–, Educacion Endowment Foundation erakundeak zientifikoki aztertzen dituen esku-hartze sorta baten artetik aukera dezakete, eta beste mota bateko ikasleen mesedetan ere izan daitezke. Programa horrek duen garrantziaz ohar gaitezen, Erresuma Batuko Lehen Hezkuntzako eskolek 1.455 libera gehigarri jaso zituzten 2023-24 ikasturtean jantokirako laguntzak jasotzen zituen ikasle bakoitzeko.

Ikastetxeen finantzaketa horko ikasle guztien kalteberatasun sozioekonomikoaren mailari lotzea da ikasle kalteberak matrikulatzeko eta horiek joaten diren ikastetxetan kalitateko hezkuntza emateko pizgarriak hobetzeko beste bide bat. Frantzia, esaterako, gizarte-konplexutasun handieneko ikastetxeak REP edo REP+ (réseau d'éducation prioritaire) gisa sailkatzen dira, errepikatze-tasa, beka jasotzen duen ikasle kopurua, gurasoen lanbideak edo auzoaren profil sozioekonomikoa bezalako adierazleen arabera. Ikastetxe horietako ikasleek ratio baxuagoak, finantzaketa gehigarria eta berariazko hezkuntza-laguntza dituzte, eta irakasleek soldata-osagarri bat, prestakuntza hobeagoa eta irakaskuntza-karga murriztuagoa jasotzen dute. Irlandan, berriz, tradizio luzea du Delivering Equality of Opportunity in Schools programak. Horren bidez, irizpide nagusiki sozioekonomikoetan oinarrituta aukeratzen diren ikastetxeek baliabide gehigarriak jaso ditzakete, zuzeneko finantzaketa jasoz eta langile gehiago eskainita, eta baita desabantaila sozioekonomiko handiko beste eskola eta komunitate batzuetan funtzionatu izan duten programa eta esku-hartzeetarako aukerarekin. Deigarria egiten zaigu programaren helmena eta anbizioa. Haren finantzaketa 180 milioi eurora heldu zen 2023. urtean, 6 milioi biztanlera heltzen ez den herrialdea izanik.●

## 7. / Euskadiko itunpeko eskolaren bizefalia

LEuskadiko itunpeko eskola ez-ohikoa da hainbat zentzutan. Hasteko, garrantzi izugarria du euskal hezkuntza-sistemaren barruan. Euskadiko ikasleen erdia, gutxi gorabehera, itunpeko eskola batean matrikulatuta zegoen 2020-21 ikasturtean. Proporzio hori beste edozein autonomia-erkidegotan ikusi izan denaren oso gainetik dago, eta ELGEko herrialdeen artean Txilek, Belgikak, Herbehereak eta Erresuma Batuak bakarrik gainditzen dute (3. eta 4. grafikoak).<sup>44</sup>


Euskal hezkuntza-sisteman duen garrantzia bainoago, ordea, Euskadiko itunpeko eskolaren “bizefalia” da seguruenik bere ezaugarriarik ez-ohikoena, hau da, ikastetxe katolikoan eta ikastolen artean ematen den banaketa gutxi gorabehera orekatua. Euskal hezkuntza-sistema 50-25-25 zifren artean banatzen da, gaingiroki; %50 eskola publikoari dagokio, %25 itunpeko eskola katolikoari, eta %25 ikastolei.<sup>45</sup> Kontu bitxia, bi itunpeko eskola-taldeek

44 Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren estatistikak ikastetxe pribatuei buruzkoak dira, baina funtsak jasotzen dituzten ikastetxe pribatuak itunpekoak dira osorik edo ia osorik.

45 Euskal Hezkuntza Sistemaren Estatistikak, 2021-22; Eskola Katolikoak, 2021-22.

filosofia zeharo desberdinak bultzatzen dituzte, eta horiek babesten dituzten gizarte-sektoreak ez datoz bat ezinbestean. “Bizefalia” horrek hauspotu egiten du itunpeko eskola askotarikoagoaren irudia, eta, beste lurralde batzuetan ez bezala, horrek azaltzen du bai alderdi kontserbadoreen aldetik, bai aurrerakoien aldetik jasotzen duen babes irmoa. Beraz, ez gintuzke harritu behar EAJk eta EH Bilduk itunpeko eskolarentzat doakotasuna lortzeko berariazko helburuarekin itunpeko eskola %100ean finantzatzeko iragarri zuten aliantzak.<sup>46</sup> Hala eta guzti, azken datuen arabera, oraindik ez da ikusten finantzaketan hobekuntzarik izan denik. Izan ere, euskal hezkuntza-sisteman bereziki handia zen eskola publikoaren eta itunpekoaren arteko arrakala ikasle bakoitzeko gastuari dagokionez.<sup>47</sup> Horrez gain, aipatu beharra dago bizefalia horrek hobetu egiten duela itunpeko eskolaren ordezkagarritasuna, baina ikastolen eta eskola katolikoaren filosofiarekin identifikatzen ez diren sektore batzuk kanpoan uzten dituela.

22 grafikoa. **Itunpeko ikastetxeetarako transferentziak**



Iturria: egileak egina Hezkuntzako 2023ko Adierazleen Estatu Sistemaren datuekin.

***Euskadi es la comunidad autónoma con el mayor porcentaje de gasto público dedicado a la red concertada.***

46 **El Salto, 2021.**

47 Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, 2023.

Euskadi da, beharbada, itunpeko eskolek, bereziki ikastolek, betetzen duten eginkizuna 1. laukian aipatzen den ordezkatzeko-ikuspegira gehien hurbiltzen den autonomia-erkidegoa. Horrek azaltzen du zergatik ez dagoen eskola publiko bakar bat ere Lazkao, Usurbil, Ibarra, Loui, Anoeta eta Irura bezalako tamainako udalerrietan.<sup>48</sup> Jose Luis Sukia Ikastolen Elkarteko zuzendari ohiak hau azaltzen zuen El Salto egunkarirako artikulu batean: “Guk uste dugu ikastolak publikoak direla. Ez ditugu publikotzat hartzen Administrazioak bere funtzionamenduaren %100a arautzen dutenak bakarrik.<sup>49</sup> Edo EH Bilduko zinegotziak zioen moduan: “Ezin da esan ikastola ez denik publikoa”. “Ba al dago herria baino publikoago denik? Herriak egin zuen lan hori”. Nolanahi ere, eragile guztiek ez dute partekatzen ordezkatzeko-eginkizun hori, eta itunpekoari buruzko ikuspegi subsidiarioa nola hondar-baliokoa dutenek, Euskal Eskola Publikoaren EHIGEk bezala, uste dute ikastolak “publifikatu” egin behar direla, besteak beste ikastolak bakarrik dauden udalerrietan derrigorrezko hezkuntzaren doakotasuna bermatzeko dagoen zailtasun handiagoagatik.

Baliteke alderdi horiek guztiek azaltzea Euskadin itunpeko eskolari lotutako eskola-segregazioaren datu ez bereziki negatiboak. Eskola publikoen eta itunpeko eskolen arteko arrakala sozioekonomikoa autonomia-erkidegoen arteko bosgarren txikiena da (9. grafikoa), eta laugarrena atzerritar herritartasuneko ikasleei dagokionez (12. grafikoa). Emaitza horiek bateragarriak dira Euskadiko eskola-segregazioko indize konparatiboki altu batekin, Save the Childrenek eta EsadeEcPolek 2022ko PISA datuekin oraintsu ateratako txostenak dioten moduan.<sup>50</sup> Indize horien zioa sare bakoitzaren barruan ematen den eskola-segregazioan datza. ●

---

48 **El Salto, 2023.**

49 Ídem.

50 Gortazar eta Corderos, 2023.



## 8. Save the Childrenen proposamena itunpeko eskola arautzeko

Kontuan harturik itunpeko eskola oso presente eta modu egonkorrean sustraiturik dagoela espainiar hezkuntza-sisteman, sistemaren ekitatean laguntzeko itunpeko eskolaren arau eta finantza arloko testuingurua nola eguneratu beharko litzatekeen aztertzen dugu lauki honetan.<sup>51</sup> Eragile eta administrazio ezberdinen arteko lankidetzaren behar da neurri horiek onartu eta ezarri daitezten. Halere, garbi dugu erkidegoetako administrazioak egon behar direla horren buruan, batik bat, horien hezkuntza-kontseilaritzak eta -sailak. Proposatzen ditugun neurri batzuk aplikatzen daude dagoeneko, osorik edo zati batean, Espainiako hezkuntza-sisteman, baina berdin-berdin aipatzen dira hemen, iraul ez daitezten. Bukatzeko, garrantzitsua da aipatzea proposatzen diren jardueretako batzuk eragile askoren arteko adostasuna eskatzen dutela eta horien inplementazioa nahiko konplexua dela. Horregatik, epe ertain eta luzera begira aplikatzeko pentsatuta daude. Epe laburrean, itunen modulu ekonomikoen eguneraketa da eginkizunik premiazkoena. Helburu horretan bat datoz ia eragile politiko garrantzitsu guztiak, eta PSOEren eta Sumarren koalizio-gobernuaren akordioan ere halaxe jasota dago.

### Ezaugarri nagusiak

- Itunpeko eskola autonomia-erkidegoetako hezkuntzako sistema publikoen parte izango litzateke, ondorio guztietarako.

### Finantzaketa

- Itunpeko eskola irabazi asmorik gabekoa izango litzateke.
- Finantzaketa ikastetxe bakoitzari lotuta egongo litzateke, ez ildo edo talde zehatz batzuei, ikastetxeen ziurgabetasun finantzarioa murrizte aldera.
- Itunpeko eskolek oinarriko finantzaketa bat jasoko lukete, duten ikasle kopuruen arabera, eta ikasleen, administrazioako langileen eta ikasleak eskola publikoarenak bezalako baldintza onetan eta antzeko ratioetan hartzeko beharrezkoak liratekeen gainerako profesional laguntzaileen gastuak estaliko lituzke.
- Itunpekoak funts gehigarriak jasoko lituzke eskola publikoa bezala ikasleen kalteberatasun sozioekonomiko eta kulturalen eta heziketa-beharren arabera, dela kalteberatasun egoeran den ikasle kopurua kontuan hartuta, "motxila" kataluniarraren eta Pupil premium ingelesaren kasuan bezala, dela ikastetxeko ikasleen batez besteko kalteberatasunari erreparatuta, irlandar DEIS programarekin eta frantziar REP eta REP+ eskoletan egiten duten moduan (6. laukia).

51 Espainiako hezkuntza-sisteman itunpeko eskolaren egungo testuinguru juridiko eta finantzarioa hobeto ulertzeko, Carlos Vidal Prado eta Ana Belén Casares Marcos irakasleek Save the Childrenentzat egindako **"Equidad e igualdad de oportunidades educativas: gratuidad, inclusión, no discriminación y escolarización equilibrada en la regulación de los conciertos educativos"** [Hezkuntza-aukeren ekitatea eta berdintasuna: doakotasuna, inklusioa, diskriminazio-eza eta eskolatze orekatua itunpeko eskolen araudian] izeneko txosten juridikoa irakurtzea gomendatzen dugu.

- Administrazio publikoek eskola publikoen antzeko baldintzetan finantzatuko lituzkete ikastetxeen eta horien instalazioen eraikuntza, eraberritzea eta mantentze-lanak. Eskolen instalazioak udalerriko eskola publikoen edo erreferentziazko eskola publikoaren antzeko estandarrak izango lituzkete. Horren truke, inbertsio publikoak amortizatu bitartean edo administrazio publikoek mantentze-gastuak estaltzen dituzten arte, administrazio publiko finantzatzaileak eskola-ordutegitik kanpo instalazioen erabilera kudeatzeko edo horien kudeaketa hirugarren baten esku uzteko eskubidea izango luke.
  - » Itunpeko eskola “zahar” batzuen berezitasunak direla-eta, itunpeko eskoletako instalazioen eraberritzearen finantzaketa publikoak hezkuntza alorrekoak ez diren irizpide batzuk izan ditzake kontuan, esaterako kultura-ondarea zaintzea edo tokiko komunitateak instalazioak erabiltzeko aukera.
  - » Itunpeko eskola berrien kasuan, beti ere gizarte-eskari bat eta eskola publiko alternatibo bat baldin bada, administrazioek lurzoru publikoa erabil dezake eskola berriak beharko duen azpiegitura eraikitzeko, beretzat gordez horren jabetza eta eskola-ordutegitik kanpo eskolaren instalazioak kudeatzeko eskubidea. Kasu horretan, administrazio publikoek oso-osorik bere gain hartzen dituztenez kapitalaren gastuak, lagapen-kontratuak iraupen laburrekoak izango lirateke eta hezkuntza-ituna egotearen eta betetzearen baldintzari lotuta egongo lirateke. Ikastetxearen kudeaketa administrazio publikoei eskualdatu daiteke sinatutako hezkuntza-ituna ez bada betetzen edo amaitu egiten bada.
- Udalerriko eskola publikoek edo erreferentziazko eskola publikoak eskaintzen dituztenez/dituen ez gain beste zerbitzu eta jarduera gehigarri batzuk eskainiz gero, itunpeko eskolek urte anitzeko programa-kontratuak sinatuko lituzkete administrazio publikoekin, non zehaztuko bailirateke eskaintako hezkuntza-zerbitzu gehigarriak eta horiei lotutako finantzaketa publikoa. Programa-kontratu horiek banan-banan negoziatuko lirateke Administrazioarekin, ikasleen beharretara eta ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokituta.
  - » Erreferentziazko eskola publikoen aldean eskainiko litzatekeen hobekuntza edo zerbitzu gehigarri oro arrazoitu eta negoziatu egin beharko litzateke administrazio publikoekin, ikasleria kalteberenean duen inpaktua bereziki aintzat hartuko duen kostuaren eta onuraren arteko azterketa bat egin eta gero. Hezkuntza-administrazioen eta itunpeko ikastetxeen arteko negoziazioa errazteko asmoz, Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalak (gaztelaniaz, INEE) edo autonomia-erkidegoetako antzeko erakundeek hezkuntza arloko esku-hartze eraginkorren zerrenda bat egingo lukete espainiar testuingururako, kostuaren eta onuraren arteko analisisian oinarrituta (ikus Erresuma Batuko Teaching and Learning Toolkit programa 6. laukian). Save the Childrenen, adibidez, ondo ikusten dugu eskola-jantokiaren eta ordutegi zatituaren finantzaketa publikoa, nahiz eta ez egon jantokia duen

Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-instituturik, eta nahiz eta autonomia-erkidego batzuetan eskola publiko gehienek ordutegi jarraitua duten aukeratuta.

## **Doakotasuna**

- Doakotasuna Hezkuntza Ikuskapenaren atal berezi batek edo Doakotasun Bulego berri batek gainbegiratuko luke, era aktiboan. Gainera, atal horiek laguntza emango liokete ikastetxeei benetako doakotasuna lortzeko eta zigorrak ezarriko lituzkete ez-betetze errepikakorren edota larrien kasuan.
- Hezkuntza proiektuaren edo proiektu pedagogikoaren muina osatuko luketen hezkuntza-zerbitzu eta -jarduera guztiak doakoak izango lirateke.
- Eskolaz kanpoko jarduerak eta borondatezko beste zerbitzu osagarri batzuk, adibidez, jantokia edo eskola-garraioa, irabazi asmorik gabeko jarduerak izango lirateke eta udalerriko ikastetxe publikoen edo erreferentziazko eskola publikoaren antzeko prezioak izango lituzkete.
  - » Eskola publikoaren tarifak berdintze aldera, itunpeko eskolak ikastetxe publikoen erosketa zentralizatueta atxiki ahalko lirateke zerbitzu osagarri guztietarako, bereziki eskolako garraiorako eta jantokirako, negoziatzeko ahalik ahalmen handienaz baliatzearen.
- Itunpeko ikastetxeetan eskolatutako ikasleek eta horien familiek eskola publikoan eskolatutako ikasleen eta horien familien baldintza bertsuetan jaso ahalko lituzkete beka eta laguntzak.
  - » Itunpeko eskoletara joaten diren ikasleentzat uniformearen kostua estaltzeko aukera zabalduko litzateke. Horren prezioa, edozein kasutan, Doakotasun Bulegoak edo Hezkuntza Ikuskapenaren doakotasun-zerbitzu bereziak gainbegiratuko luke.

## **Onarpen-prozesuak**

- Onarpen-prozesuetan, funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek ezingo lukete bereizketarik egin honako arrazoi hauetakoren batengatik: jatorria, generoa, egoera soziokulturala, erlijio-sinesmenak edo beste edozein inguruabar.
  - » Hezkidetzaderrigorrez bete beharrekoa izango litzateke funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztientzat; sexuaren arabera ikasleak banatzen dituzten eskolak eta ikasgelak hezkuntza-itunen helburuaren kontrakoak dira.

- Hezkuntza Kontseilaritzak egingo luke espedienteen eta onarpen-prozesuaren kudeaketa. Ikastetxeen eskuetan, soilik ate irekiko jardunaldiak eta familie zuzendutako informazio-saioak egongo lirateke. Onarpen-prozesuetan familia eskatzaileei elkarrizketarik ez egitea gomendatuko litzateke. Ikastetxea ez litzateke ezertan sartuko eskabideetan, espedienteetan eta baremazioan.
- Baztertzeko ahalmena duten onarpen-irizpideak ezabatu egingo lirateke, bai Hezkuntza Kontseilaritzak hautatuak badira, bai ikastetxeek berek ezarritakoak badira. Honako irizpide hauek ezabatzea edo debekatzea proposatzen da, beste batzuen artean<sup>52</sup>
  - » Eskatzailea edo senidea ikastetxeko antzinako ikaslea da
  - » Eskatzailea edo senideak eskatutako ikastetxean funts publikorik gabeko etapetan matrikulatuta daude
  - » Eskatzailea edo senideak haur-hezkuntzako eskola jakin batzuetan matrikulatuta daude
  - » Eskatzailea ikastetxe publiko edo pribatuetako haur-hezkuntzako lehen zikloan matrikulatuta dago
  - » Eskatzailea edo senidea ikastetxearen erakunde kudeatzaileko kidea edo langilea da, edo ikastetxeari lotutako elkarteekin (adib., kongregazioak, kooperatibak, elkarteak, enpresak) lotura du
  - » Eskatzaileak edo senideak lotura du sinesmen edo filosofia pedagogiko jakin batekin
  - » Gurasoek soldatapeko jarduera bana dute
  - » Gurasoek hezkuntza arautuaren sektorean egiten dute lan
  - » Aitona-amonak edo beste senide batzuk
- Funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek ikasle bat ezingo lukete behin betiko kanporatu.

### **Eskola-autonomia**

- Itunpeko eskolek eskola-autonomia zabala izango lukete arlo guztietan (adib., finantzak, giza baliabideak, curriculum, ebaluazioa, diziplina-arauak...), familie kuotak kobratzea eta onarpen-prozesuak izan ezik. Autonomia hori eskola publikoek dutenaren antzekoa izan beharko litzateke.

52 2. taulako potentzial baztertzailerak duten irizpideen artetik, ez dugu debekatzea proposatzen ikastetxean lan egiten duten gurasoen ikasleei emandako puntuazioa eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe elebidunetarako atzerriko hizkuntza batean gutxieneko maila bat egiaztatzea, irizpide horiek duten alde onak potentzial baztertzailerak hori konpentsatzen dutela iritzita. Nolanahi ere, gure ustez, administrazioek bitarteko guztiak ipini behar lituzkete Bigarren Hezkuntzako ikastetxe elebidun batean eskolatzea nahi duten ikasle guztiak eskatzen zaien hizkuntza-maila arrazoizko denbora batean eskuratzeko aukera izan dezaten.

## Bibliografía

- ALMAZÁN, A., MARTÍNEZ GARRIDO, C. A., y MURILLO, F. J., 2021. *La elección de centro educativo en un sistema de cuasi-mercado escolar mediado por el programa de bilingüismo [Ikastetxearen aukeraketa ia eskola-merkatua deneko sistema batean elebitasun-programa tarteko]*. Revista complutense de educación, 32(1): 89-97.
- ALVES, F., ELACQUA, G., KOSLINKI, M., MARTINEZ, M., SANTOS, H., y URBINA, D., 2015. *Winners and losers of school choice: Evidence from Rio de Janeiro, Brazil and Santiago, Chile*, *International Journal of Educational Development*, 41: 25-34.
- BAUM, D., LEWIS L., LUSK-STOVER, O., y PATRINOS, H. A., 2014. *What Matters Most for Engaging the Private Sector in Education: A Framework Paper*. SABER Working Paper Series, World Bank.
- BOESKENS, L., 2016. *Regulating Publicly Funded Private Schools: A Literature Review on Equity and Effectiveness*. OECD Education Working Papers, 147, OECD Publishing, Paris.
- BONAL, X., ZANCAJO A., y SCANDURRA, R., 2019. *Residential segregation and school segregation of foreign students in Barcelona*. *Urban Studies*, 56 (15): 3251-3273.
- CALSAMIGLIA C., y GÜELL, M., 2018. *Priorities in school choice: The case of the Boston mechanism in Barcelona*. *Journal of Public Economics*, 163: 20-36.
- CASARES, A., y VIDAL, C., 2024. *Equidad e igualdad de oportunidades educativas: gratuidad, inclusión, no discriminación y escolarización equilibrada en la regulación de los conciertos educativos [Ekitatea eta hezkuntza-aukeren berdintasuna: doakotasuna, inklusioa, diskriminaziorik eza eta eskolatzeko orekatua hezkuntza-itunen araudian]*. Save the Children.
- CLARAMUNT, J., 2024. *La segregació escolar a Catalunya: estem millor o pitjor que fa cinc anys?* Fundació Bofill.
- COBREROS L., y GORTAZAR, L., 2023. *Todo lo que debes saber de PISA 2022 sobre equidad [2022ko PISAren ekitateari buruz jakin behar duzun guztia]*. EsadeEcPol y Save the Children.
- HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA, 2023. *Sistema estatal de indicadores de la educación 2023 [Hezkuntza-adierazleen estatuko sistema, 2023]*.
- HEZKUNTZA SAILA, 2024. *Euskal Hezkuntza Sistemaren Estatistikak, 2021-22*.
- HEZKUNTZA, ZIENTZIA ETA UNIBERTSITATE KONTSEILARITZA, 2024. *Informe 2023 sobre el sistema educativo en la Comunidad de Madrid. Curso 2021-2022 [Madrileko Erkidegoko hezkuntza-sistemari buruzko 2023ko txostena]*, Madrileko Erkidegoko Eskola Kontseilua.
- ELACQUA, G. 2012. *The impact of school choice and public policy on segregation: Evidence from Chile*. *International Journal of Educational Development*, 32 (3): 444-453.
- ELDIARIO.ES, 2023. **Almeida y Ayuso entregan parcelas gratis a colegios concertados en barrios donde la educación pública llegará más tarde** (azken sarrera: 2024/05/31).
- EL PAIS, 2024. **La escuela concertada catalana denuncia que no ha recibido las ayudas para acoger alumnos vulnerables** (azken sarrera: 2024/05/28).
- EL SALTO, 2021. **EH Bildu se alía con el PNV para blindar la red educativa concertada más grande del Estado y la segunda de Europa** (azken sarrera: 2024/05/28).
- EL SALTO, 2023. **Lazkao y otros municipios que solo tienen ikastola: ¿Deberían ser públicas?** (azken sarrera: 2024/05/28).
- ENSEIGNEMENT CATHOLIQUE, 2024. *Les chiffres de l'enseignement catholique, 2023-24*.
- EPPLE, D., ROMANO R., y URQUIOLA, M., 2015. *School vouchers: A survey of the economics literature*. NBER Working Paper Series, 21523.

- ESCUELAS CATÓLICAS, 2022. *Datos y cifras de la educación católica, curso 2021-2022* [Hezkuntza katolikoaren datuak eta zifrak, 2021-2022 ikasturtea].
- FERRER, A., Y GORTAZAR, L., 2021. *Diversidad y libertad: Reducir la segregación escolar respetando la capacidad de elección de centro* [Aniztasuna eta askatasuna: Eskola-segregazioa murriztu ikastetxe bakoitzaren hautatzeko gaitasuna zainduta]. EsadeEcPol y Save the Children.
- FINANCIAL REVIEW, 2023. **Why coeducation is so fraught in Australia** (azken sarrera: 2024/05/28).
- GARLIC B2B (2023). *Estudio de Cuotas y Precios de Colegios Concertados, Curso 2023-2024* [Itunpeko eskolen kuoten eta prezioei buruzko azterketa, 2023-2024 ikasturtea].
- GORTAZAR, L., MARTÍNEZ A., y BONAL, X., 2024. *El coste de acceso a la escuela concertada en España: las cuotas que pagan las familias y sus causas* [Itunpeko eskolan sartzeko kostua Espainian: familiek ordaintzen dituzten kuotak eta horien zioak]. EsadeEcPol.
- GORTAZAR L., y TABERNER, P. A., 2020. *La Incidencia del Programa Bilingüe en la Segregación Escolar por Origen Socioeconómico en la Comunidad Autónoma de Madrid* [Jatorri sozioekonomikoaren arabera eskola-segregazioan programa elebidunak duen eragina Madrileko Erkidegoan]. REICE: Revista Iberoamericana sobre Calidad, Eficacia y Cambio en Educación, 18(4): 219-239.
- KARSTEN, S., 2010. *School segregation (capítulo), School segregation. Equal opportunities? The labour market integration of the children of immigrants (Libro)*, OECD Publishing, Paris.
- KIWIBLOG, 2021. **Single sex schools** (azken sarrera: 20204/05/28).
- L'AVENIR, 2023. **Écoles privées: avantages et inconvénients** (azken sarrera: 2024/05/28).
- MEDIAVILLA M., MANCEBÓN, M. J., GÓMEZ-SANCHO, J. M., y JIMÉNEZ, L. P., 2018. *Factores determinantes en la elección de escuela pública bilingüe en la Comunidad de Madrid. Una primera aproximación a partir de PISA 2015* [Madrileko Erkidegoan eskola publiko elebiduna aukeratzeko faktore erabakigarriak. Lehen hurbilpen bat 2015eko PISA oinarrituta].
- MINISTRY OF EDUCATION (Nueva Zelanda), 2021. **Briefing Note: Access to co-education for gender-diverse students** (azken sarrera: 2024/05/28).
- NEILSON, C., 2013. *Targeted vouchers, competition among schools, and the academic achievement of poor students. Job Market Paper, 1 (62)*.
- OECD, 2015. *What do parents look for in their child's school? PISA in Focus, No. 51*, OECD Publishing, Paris.
- OCDE, 2023. *PISA 2022 Results (Volume II): Learning During – and From – Disruption*, PISA. OECD Publishing, Paris.
- OCU, 2023. **Encuesta OCU gastos sobre gastos escolares** (azken sarrera: 2024/05/28).
- **PRIVATE SCHOOLS CONDITIONAL INTEGRATION ACT 1975, No 129** (azken sarrera: 2024/05/28).
- SAVE THE CHILDREN (2022). *El coste de la crianza en 2022* [Hazieraren kostua 2022an].
- THE CONVERSATION, 2020. **Pourquoi la mixité scolaire filles/garçons n'est pas obligatoire** (azken sarrera: 2024/05/28).
- ZANCAJO, A., 2019. *Education markets and schools' mechanisms of exclusion: The case of Chile. Education Policy Analysis Archives, 27 (130)*.



# 1. Eranskina: Derrigorrezko etapetako onartzeko prozesu arrunterako onarpen-irizpideak, autonomia-erkidegoaren arabera

Atxikitako zentroak	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Lehen aukera gisa eskatutako ikastetxea	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
HPB edota HLBP	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak edo anai-arreben eskaera bateratua (atxikitako ikastetxeak ere sar daitezke)	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Gurasoen bizilekuaren hurbiltasuna (adibidez, lineala, eragin-eremuak)	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Gurasoen lantokiaren hurbiltasuna	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Familia-unitatearen errenta	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Gurasoek ikastetxean (edo atxikitako zentroan) egiten dute lan	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Eskatzailearen edo senideen lehen graduko desgaitasuna*	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Familia ugaria eta anai-arreba kopurua	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Guraso bakarreko familia	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Familia harreran/ Bizitegian	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Genero-indarkeriaren biktima	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Terrorismoaren biktima	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Erditze anizkoitza	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Behartutako mugikortasuna (adib. genero-indarkeriagatik edo terrorismoagatik, etxegabetzea, gizarte-bazterkeria)	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Goi-mailako kirolariak (ikastetxe berezietan)	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Arte-irakaskuntza profesionalak eta Bigarren Hezkuntza aldi berean egitea (ikastetxe berezietan)	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Programa elebidunak eta ingeles-maila (ikastetxe berezietan)	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Hezkuntza-etapan ikastetxerik ez duen udalerrri baten bizitzea	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Gurasoen soldatapeko jarduera	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Baimendutako ikastetxe bateko haur-hezkuntzako lehen etapen matrikulatutako ikaslea	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Ikaslea, anai-arrebak edo gurasoak antzinako ikasleak dira	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Gaixotasun kronikoa	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Kooperatiba-bazkidea	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Familia gizarte-bazterkeria arriskuan edo kalteberatasun ekonomiko berezian da	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Mendetasun-egoeran dauden pertsonak dituzten familiak, lehen mailako senideak ez direnak	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Familia ez-kalteberen eskaera bateratua konplexutasun handiko ikastetxeetan	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○
Ikastetxearen hautazko irizpide osagarria (ikus taula zehatza)	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○	○

- Irizpide nagusiak edo plaza erreserbatzeko eskubidea ematen dutenak
- Lehentasunezko irizpideak eta irizpide osagarriak/gehigarriak

Andaluzia    Aragoi    Asturias    Balear uharteak    Kanariak    Kantabria    Gaztela eta León    Gaztela-Mantxa    Katalunia    Extremadura    Galizia    Errioxa    Madrilgo Erkid.    Murzia    Nafarroa    Euskadi    Valentziako Erkid.    Ceuta eta Melilla

(\*) Erkidego batzuetan, gerora sortutako desgaitasunak plaza erreserbatzeko eskubidea ematen du onarpen-prozesu arruntean. Oharrak: Onarpen-fase arruntean kontuan hartu ez diren irizpideetako batzuk kontuan har daitezke ezohiko eskolatzeko-prozesuan, batez ere gerora sortutako egoerekin lotutakoak (gerora sortutako desgaitasuna, nahitaezko mugikortasuna, familia-harreraren hasiera, eskola-jazarpena). Autonomia-erkidego batzuek plazak gordetzen dituzte atzerrian egonaldiak egingo dituzten ikasleentzat, baina ez dugu kontuan hartzen, ez baita onarpen-irizpide hutsa.

## 2. Eranskina: Ikastetxearen hautazko irizpide osagarria

### ***Ikastetxeek balio handiago eman diezaiekete Kontseilaritzak dagoeneko kontuan hartutako irizpideetako batzuei***

Kanariak	Irizpide publikoak eta ez-baztergarriak izango dira, eta ezingo da izan guztizko puntuazioaren %30 baino gehiago (hurbiltasun irizpidearen kasuan izan ezik).
----------	---

### ***Ikastetxeek Hezkuntza Kontseilaritzak eskainitako irizpide osagarrien zerrenda baten artean aukeratu ahal izango dute***

Balear uharteak	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Guraso bakarreko familien seme-alabak.</li> <li>2. Erditze anizkoitzeko anai-arrebak.</li> <li>3. Mugimendu-, zentzumen- eta entzumen-premia bereziak dituzten ikasleak, bereziki hornitutako eta egokitutako ikastetxeren batean plaza bat betetzeko aukera dutenak.</li> <li>4. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen mailarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko eskoletako batean edo baimendutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskoletako batean eskolatua izatea.</li> </ol>
Ceuta eta Melilla	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikaslearen aita, ama edo legezko ordezkaria edo eskatzailearen anai-arreba plaza eskatzen den ikastetxeko ikasle ohia izatea.</li> <li>2. Plaza eskatzen den ikastetxean alde aurretik matrikulatuta egotea, ikastetxetz aldatzeko zehapenen kasuan izan ezik.</li> <li>3. Ikaslearen hirugarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaidea dena plaza eskatzen den ikastetxeko langilea izatea.</li> </ol>
Gaztela eta León (hiru irizpide arte)	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Plaza eskatzen den ikastetxeko ikasle ohi baten 1. mailara arteko odolkidetasuneko senitartekoa izatea.</li> <li>2. Plaza eskatzen den zentroko langile baten edo plaza eskatzen den kongregazio, elkarte edo fundazio titularreko kide baten 3. mailara arteko odolkidetasuneko senidea izatea.</li> <li>3. Funts publikoekin mantentzen diren ikastetxe berezietan edo horien titulartasun berekoetan ikastea.</li> <li>4. Eskatu den ikastetxean matrikulatuta ez dauden anai-arreba gazteagoak izatea.</li> <li>5. Gurasoen, aitona-amonen edo lantokiaren helbidea egiaztatzea, zentroaren posta-kodearen barruan.</li> <li>6. Onarpena arautzen duen araudian aurreikusita den edozein irizpide.</li> </ol>
Murtzia	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikastetxea lehen aukera gisa eskatzea.</li> <li>2. Anai-arrebak ikastetxean matrikulatuta egotea.</li> <li>3. Ikaslearen bizilekua ikastetxetik hurbil den eremuan egotea.</li> <li>4. Ikastetxean aurretik hezkuntza-etapa bat ikasita izatea.</li> <li>5. Antzinako ikasle baten seme-alaba edo anai-arreba izatea.</li> <li>6. Lehen Hezkuntzan British Council programa ikasi izana.</li> </ol>

### ***Ikastetxeek askatasunez aukeratu ahal izango dituzte irizpide osagarriak beren eskola-kontseiluen bidez, baldintza hauekin:***

Euskadi	Irizpideak publikoak, objektiboak eta ez-baztergarriak izango dira, honako arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatik.
Galizia	Ikastetxeek, irizpide osagarri gisa edozein inguruabar garrantzitsu eta objektibo aukeratu ahal izango dute arrazoituta, egiaztatzeko modua adierazita. Hautatutako irizpide osagarria jendaurrean jarriko da.
Valentziako Erkid.	Irizpideak publikoak, objektiboak eta ez-baztertzailerak izango dira, honako arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza- edo etnia-jatorria, sexua, erlijioa, iritzia, desgaitasuna, adina, gaixotasuna, sexu-joera edo genero-identitatea edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial. Administrazioak ikuskatuko du prozesua.
Madrileko Erkid.	Irizpideak publikoak izango dira.



Argitaratzailea:

**Save the Children Espainia**  
**2024ko iraila**

